


GLOBALIZAZIOAREN GIZARTEA ETA ORDENA LINGUISTIKO BERRIA

EKAITZ SIRBENT AUZMENDI



GLOBALIZAZIOAREN GIZARTEA

ETA ORDENA LINGUISTIKO BERRIA

Gizartea, teoria, kultura eta hizkuntza Euskal Herrian

"Bearrik mugaz arainditik etorriko zaikula euskararen azia,
baldin lurren gelditzen bada ereiteko"

Fermin Irigarai

AURKIBIDEA

I. SARRERA

1. Sarrera

II. GLOBALIZAZIOAREN GIZARTEA

2. Gizarte garaikidearen definizioa: hizkuntza auzia

2.1 Definizioak askotarikoak gizarte eta paradigma aldaketa prozesuaren ondorio

a. Globalizazioa eta kontzeptuaren adiera-nahastea

b. Globalizazioaren soziologia anitz eta osatuago baten beharraz

III. GLOBALIZAZIOAREN ONDORIO-ERAGINAK

3. Globalizazioaren talka politiko-kulturalaz

3.1 Identitatea arazo bezala

3.2 Globalizazioaren ondorio politikoak

3.3 Globalizazioaren ondorio kulturalak eta globalizazioa

3.4 Globalizazioaren ondorio linguistikoak

IV. ORDENA LINGUISTIKO BERRIA

4. Hizkuntza boteretsuak, eskualde hizkuntzak eta tokian tokiko hizkuntzak

4.1 Hizkuntza komunitatea, hizkuntza gatazka eta hizkuntzen krisia

4.2 Euskal kulturaren eta euskararen alde irmo eta makalak

4.3 Euskara bezalako hizkuntza gutxiagotuen etorkizuna

a. Ondorioak

V. GLOSARIOA

VI. AIPATU EGILE ETA LAN BATZUK

I.- SARRERA

*"Escrevo, leio, e risco; vejo quantas
Vezes s'engana quem de si se fia"*

(Izkiriatu, irakurri, eta ezabatzen dut; ohartuaz
zenbat aldiz den engainatzen bere buruaz
fidatzen dena)

Diogo Bernardes

Ez dirudi zazpi mila hiztun ingururen hizkuntza batean idazteak irakurle ugari erakarri dezakenik; ez behintzat Euskal Herriaren biztanleriaren %23ko ezagutza duen hizkuntza den aldetik, eta, 400 edo 800 milioi eleketarik osaturiko hizkuntza komunitate batekin alderatzen jarritz gero, bederen. Geure hizkuntza, euskara, harea-pikor bat da hizkuntzen basamortuan, edo hobe, munduko hizkuntzen multzoan. Eta berari tinko atxikitzen diogun arren, alferrikako lanak eta plangintza hutsalak egiten ditugula iruditzen zaigu maiz; ez garela kapaz izango, agian, hizkuntzen hipermerkatuan saltoki ttattar bat jartzeko ere. Ikuspuntu honetatik, batzuek uste dute euskaldunok orraziak saldu nahian gabiltzala burusoilen erreinuan, edo ezgaraiz dihardugula.

Ekonomiaren ikuspuntu zorrotza mundua merkatu bakar erraldoi bezala iradoki nahian dabil. Zorionez, ekonomiak ez ditu gizarte prozesuak hertsiki zedarritzen, ezta gizartearen antolaketa guztiz mugatzen ere. Hamaika erataraz aldu izan den globalizazioak homogeneotasuna, batasuna, baterakortasuna eta orokortasuna bezalako kontzeptuak dakartzakigu burura. Baina horrela gertatzen al da benetan?

Mundua gero eta baterakorrago ageri zaigu, batasun bat bailitzan, baina beti izan da horrela. Antzina, eta orain bakan batzuk ere, isolatuak ageri ziren zonaldeak munduan, elkarren artean ezezagunak zirenak. Gaur egun, ordea, interkomunikazioa gero eta handiagoa da, eta elkar ezagutza azkarrago eman ahal da. Abiadura, gertatzen ari zaiguna ulertzeko giltza da. Funtsean, iraganeko eta egungo gertakizunak ez dira ezberdinak, baino indar eta intentsitate biziagoz iristen zaizkigunez ez dugu guztiak asimilatzeke ahalmenik.

Europar 103 hizkuntza bizi dira, 750 milioi hiztunekin orotara. Hiztun horien gehiengoak, ia %95, estatuen hizkuntzetako batean mintzatzen dira. Gaintzeko hiztunok ez dugu %5a osatzen, baina hala ere, 74 hizkuntza gutxiagotuetao batean adierazten garen hiztunak 40 milioi gara. XX. mendean zehar bi hizkuntza desagertu ziren (mannois eta dalmato-erromatarra). Eta datozen urtetan europako zabalera honetan gehiago desagertuko direla pentsatzeko arrazoiak badaude. Ezinezkoa da, alabaina, epe motzera 103 hizkuntza horiek desagertzea. Zenbat desagertuko dira? Zeintzuk?

Horregatik, hizkuntza gutxiagotuak eta globalizazioa bezalako gai zabalez eta korapilatsuez jarduteak zailtasun handiak dauzkan arren, gure diziplinak exijitzen duen zorroztasunez aritzea are zailagoa izaten da; paragrafoak idatzi ahala adarrak irekiz eta adaxkak zabalduz baitoaz, gero hauek ixteko nahi bezainbeste espazio eta astirik eduki gabe.

Hala, *Sakontze egitasmorako* borobiltzea deliberatu dudan testu hau, klabe irekian irakurria izan dadin eskertuko nuke, artikulua irakurtzen duenak ez baititu galdera-erantzunak aurkituko, kuestio-proposamenak baizik. Hortaz, honako hauek ondorio biribilak baino, burutazio itxigabeak dira, hausnarketarako gonbite eta eztabaidarako pizgarri izan nahiko luketen ideiak.

II.- GLOBALIZAZIOAREN GIZARTEA

2. Gizarte garaikidearen definizioa: hizkuntza auzia

Aurizki eta izenondo ugariekin egin ohi du topo gizarte garaikideaz artikulua eta liburuak irakurtzen dituen orok. Behin eta berriro errepikatzen dira gizarte postindustrial, posmoderno, globalizazioaren gizarte, kapitalismo berantiarra, sare gizarte, eta gizarte posfordista bezalako terminoak. Luzea den zerrenda hau ez dela izengoiti arazo hutsa frogatu nahi dut atal honetan, egungo gizartearen hizpide duten eztabaida garaikideak, gai zehatzerata mugatuak ez ezik, gizarte garaikidearen definizioari zuzenduak ere badaudelako. Gizarte nolakoa den —gizakia zer den— bilakatu da auzi nagusia.

Fenomenoen konplexutasun enpirikoen markoan, izengoiti horien beharra gizarte modernoa azaltzeko erabili diren tresna analitikoek gizarte garaikidearen elementu eta jazoera berriak azaltzeko gaitasunik ez dutelako sortzen da. Definizioak askotarikoak izan arren, kontzeptu horiek guztiek azken hiruzpalau mendeetan gizarte modernoa irakurtzeko erabili izan diren oinarri zaharrak mantentzen dituzte. Elkarren artean desberdinak, kontrajarriak, aurkakoak, "kritikoak" batzuk eta "lasaigarriak" besteak. Baina gizarte modernoa gizarte industrial bezala edo gizarte kapitalista bezala irakurtzen jarraitzen da oraindik.

Soziologia klasikoak ez ezik, soziologia garaikideak ere "industrialismo garatuaren sistema botere sozial autonomo eta geldiezin bezala aintzat hartu behar dela onestu du" (Beck 1998:126). Azken hamarkadetako gogoetak hartuz gero adibide gisa, komunean dute

modernizazioa eta modernizazio sozioindustrialaren parekatzeko joera. Modernitate ziurak ohikoa duen irakurketa lineala egiten dute guztiek ere.

Bi tradizio nagusietan oinarritzen dira definizio ahalegin guztiak. Azken batean, beraz, aniztasun hori guztiori modernitatea irakurtzeko beti erabili izan diren ohiko bi paradigmen aldaera hutsak baino ez dira. Modernitatearen zutabe izan diren gizarte kapitalistaren paradigma eta gizarte industrialaren paradigma (Giddens 1993) ez dira gizarte garaikidearen beharrak erantzuteko eta interpretatzeko gai azalduko. Eta, beraz, aipatu diren aurrizki eta adjektiboek paradigma horietan badute oinarria.

Gizarte erreala teorizatzen urrun daude. Ez hori bakarrik. Katagoria eta marko teoriko zaharrak erabiltzeak gizartearen bilakaera baldintzatzen duen unetik, fenomeno berrien aitzinean jokabide zaharrak erabiltzeak gizarte gatazka eta haustura bultzatzen dezake. Baldintzatzen daude eguneroko bizia eta bizikidetzaren gizartearen teoria abstraktuarekin.

Alberto Melucci soziologo italiarraren hitzak erabiliz, aipatu den hizkuntza auzia, azken batean, "egungo dilema teorikoaren sintoma adierazgarria litzateke". Analista sozialek "ez litzateke gai zehatzak soilik eztabaidatuko, bestelako auzi orokorrak baizik, tartean gizarte garaikidearen definizioa" (Melucci 2001).

Gizarte aldaketak egiturazkoak izatea modernizazioaren berariazko ezaugarria izan da. Baina aldaketa hauek, gaur egun, inoiz baino sendoago eta biziago eman ahala, jarrera "modernoek" gizarteaz egiten dituzten irudi eta errepresentazioek iraganarekin bat egiten dute, orainaldiko bizia guztietan jada bertaratua dagoen "etorkizun erreala" (orainaldia) ekidinez. Garapen sozioestruturalaren ondorioz gaur arte baliogarriak izan diren kontzeptuak ez dira gizarte garaikideaz aritzeko egokiak. Horien artean aipa daitezke, besteak beste, "lanaren gizarte", familia nuklearra, demokrazia formala, zientzia eta

teknikaren errugabetasuna, klasea eta nazio-estatua, nahiz nostasunaren eta indibiduoaren definizio modernoa.

Kategoria hauek modernitate industrial-kapitalista zuten aipagai. Egun modernitate hori *iragana* izanagatik ere, gizarteari erreferentzia egiteko erabili diren kategoriak mantentzen jarraitzen da. Eta honek berebiziko garrantzia du. Izan ere, tipologia eta eskema teoriko zaharrak, eta horren ondorioz datuak, kategoriak eta egitura soziala mantentzen jarraituz gero, ondoeza areagotu besterik ez da egingo, beharrezkoak diren erantzun globalak ezkutatu eta arriskuak areagotuz (Beck 2000:13-31).

Iruzurra besterik ez da egiten unibertso kontzeptual modernoa mantenduz. Beharrezkoa da, al bait arinen, aldatzen ari den gizarteari ohiko kontzeptuei esanahi berria emanaz, edo hobe, hizkera berri baten bidez, erreferentzia egitea. Sakoneko aldaketa zientifikoetan jazo bezala, gizabanako eta taldeak orduan baino ez dira egingo kontziente modernitate industrial-kapitalista bere azkenera iritsia dela. Edo mundu berri batean bizi dela.

2.1. Definizioak askotarikoak gizarte eta paradigma aldaketa prozesuaren ondorio

Gizarte garaikideaz hausnartzeko zein erreferentzia egiteko, beraz, esan dugu hamaika aurrizkiz eta adjektiboz, nozioz eta kontzeptuz¹ baliatu dela literatura akademikoa azken hamarkadetan; testu zientifiko asko eta askotan gizarte *post-industrialaz* (D. Bell), *posmodernoaz* (A. Toynbee, J.F. Lyotard eta F. Jameson), *herrixka globalaz* (M. McLuhan), *informazioaren* eta *sarearen* gizarteaz (M. Castells), *mundializazioaz* (Y. Brun-

¹ Noziook ezin daitezke kontzeptutzat definitu, Melucciren ustez; gehiago dira sintomak edo erabat zihurra ez den eta adierazteko zailtasunak dauzkagun zeinu linguistikoak. Pentsalari italiarrarentzat *impasse* teoriko eta epistemologiko batean aurkitzen gara, oraindik orain darabilzkigun orokortasun, hizkera eta unibertso kategorialak modernia arokoak direlako. Autoreak trantsizio kategorial bat proposatzen du "modernoa" izateari utzi eta garaiko esperientzia eta arazo sozialei kategoria egokiez erreferentzia egin diezaiegun. Ikus: MELUCCI, 2000.

-svick eta A. Danzin), *mundu digitalaz eta ziberespazioaz* (N. Negroponte), *hirugarren uhinaz* (A. Toffler), edota *arriskuaren eta globalizazioaren* gizarteaz (U. Beck) hitz egin izan da.

Autore batzuek, aldaketa garaikide ezberdinen *prozesuari* eman diote garrantzia kategoriok asmatzerakoan, besteez prozesu horrek berak *ekoiztutako gizartean* egin dute indar terminoa sortzerako orduan; hau da, "globalizazioa" terminoa egungo aldaketen *prozesua izendatzeko* erabili den bitartean, "informazioaren gizartea", adibidez, globalizazio prozesuak sortutako *ekoizkina definitzeko* erabili izan da.

Edonola ere, analista sozialek darabiltzaten kontzepturik gehienak errealitate objektiboa bezala izendatzen denaz hurbilpen bat besterik eskaini ezin duten metaforak dira gehiago. Eta globalizazioa, azken finean, "objektu" bat baino, beti bat ez datozen eta aldi berean ematen ez diren prozesu multzo garaikideak izendatzeko erabiltzen den metafora litzateke egokiago.

Bada, atal honetan, komunitate zientifikoaren hitz-egite modu honexek eta izendatze-metaforen aniztasun honexek² aldaketa prozesu batean nola aldaketok planteiatzen dituzten arazo teorikoen aurrean gaudenaren zantzua ematen digutela argudiatu nahiko da.

Eta bistan da; mundua XXI. mendearen hastapenetan toki harrigarri eta ezustez beterikoa den neurri berean, paradigmen aldaketa prozesuan murgildurik dago. Gizateria trantsizio historikoko epe garrantzitsuenetariko bat bizitzen ari dela pentsatzeko arrazoi objektibo nahikoak daude: 70.eko hamarkadatik honat oinarri teknologikoetatik marko sozial eta instituzionaleraino doan trantsizio konplexuan barneraturik gaude (Pérez 2000).

² Alde batera utz dezagun oraingoan gizarteari erreferentzia egiteko erabiltzen diren hizkerak, orokortasunak eta marko teorikoak zaharkituak geratu direla. Aldatzen ari den gizarteaz hausnartzeko analista sozialek sortu unibertso kontzeptualaren ugaritasunari errepara diezaiogun.

Indarrean diren teknologia berriek, ekonomia, politika eta kultura arloan zein pentsamolde eta balioetan antzematen ditugun berrantolaketek, eta, demografian ikusten ditugun sartu-irteerek gure mundua zein gure ohitura, bizimodu eta pentsatzeko moduak aldatzen eta egokitzen daudela adierazten digute.

Paradigmen aldaketak berrogeita hamar edo hirurogei urtetik behin eman izan dira, beti ere iraultza teknologiko ezberdinen ondorioz. Gaur egun, komunikabideak, mikroelektronikak eta informazio eskuragarri zein merkeak konputazioak eta telekomunikazioek eskaintzen dituzten aukera ugarietara sartzea errazten dute. Muga fisikorik gabeko mundua sortzen ari da gure bekoz-beko. Mundu zabalaren neurriak etxalde bihurtu nahi omen dituen abiadura handiko trena dugu, beraz, globalizazioa.

Informazioaren gizartea deritzon ingurumarian komunikazioak planeta-mailakoak eta bat-batekoak izatera heldu dira. Teknologia berrien laguntzarekin urrunera fisikoak desagertzen ari dira eta munduko ezein zonaldetan jazotzen denak eragin berehalakoa eta zuzena izan ahal du gure egunerokoan. Irailaren 11koa gogoan, adibidetzat ekarriz, gugandik kilometro askotara gertatzen denak geure bizitzetan bat-bateko eragina izan dezakela erakusten digu:

- Interes tasak jaitsi egin ziren. AEBetako Erretserba Federaleko lehendakari Alan Greenspanek interes tasak jaitsi ondoren, Europar Batasuneko Banku Zentraleko buru Win Duisenbergekin ere interes tasak jaitsi zituen; hiritar guztion poltsiko eta ekonomian izan zuen eragina horrek.
- Lanpostuak gutxitu ziren enpresa askotan (Gamesa, Iberia...). Irailaren 11koa aitzakiatzat erabili izana posible bada ere, atentatuak lehendik pentsatuta zeuden lanpostuen galera handitu duela, bederen, onartu behar da.

- Nazioarteko hegaldietarako aireportura hiruzpalau ordu lehenagotik bertaratzea eskatzen zen.
- Miaketen eta kontrol sozialaren areagotzea, eta, segurtasunaren izenean askatasun indibidualen murrizpena.
- Hegazkin txartelen garestitzea.
- Aire konpainia iparramerikarren krisia

Eragiten gaituzten aldaketek, beraz, sentsazioz global eta ekidiezinak direnak, ez dira munduaren atal batera mugatzen, praktikoki, toki guztietara hedatzen direla esan dezakegu.

Globalizazioak, hortaz, gure bizi-moduak, faktore "mikrosoziologikoak" nahiz "makrosoziologikoak", eta baldintza humanoaren aspektu *guztiak* sakonki oso gainera berregituratzen ari dela esaten da (Giddens 2001; Robertson, [http](http://), 1996). Globalizazioaren ondorio-eraginak, komunitate zientifiko eta literatura akademikotik gaindi, eztabaida global ere bilakatu dira³. Laurogeieko hamarkadaren amaiera arte ia erabilia ez izatetik herrialde desberdinetan, bereziki intelektualen, salerosketen eta mass-medien esparruan zorroztasunez eta sakonki eztabaidatzera igaro da: Britainia Handiko zein Ameriketako Estatu Batuetako *globalization*, Frantziako *mondialisation*, Espainia zein Amerika Latinako *globalización*, edo Alemaniako *globalisierung* fenomeno, arazo eta eztabaida garaikide bera izatera datoz. Ez dago apenas herrialderik globalizazioaren afera sakonki eztabaidatzen ari ez denik.

³ Roland Robertsonen aburuz, ordea, "globalizazioa" intelektualen *play-zone* eskusibo bilaka dadin arrisku objektiboak daude. Izan ere, teoria sozial gehientsuena globalizazio prozesuaren *ekoizpena*, eta, orobat, *erreakzio inplizitua* dela iruditzen baitzaio (Robertson 1990: 15-16 orr.). Giddensentzat, aldiz, ez dago halako arriskurik. Soziologo ingelesarentzat globalizazioaz bi eztabaida nagusi egin dira: *goiztiarra* eta *oraingoa*. Eztabaida *goiztiarra* duela sei edo zazpi urte arte izan zen; akademiko eta intelektualei mugatua zegoen orduan, eta, *globalizazio* hitzak ordaineko errealitatea zuenentz galdegiten zuten kritikoei eta eszeptikoei. Bada, eztabaida hori, bukatutzat jotzen du Giddensek. Bere iritziz, *oraingoa eztabaidak* globalizazioaren *ondorioak* jorratzen ditu, eta, errealitatea aintzat hartu ostean aldaketak atzeraezinak direla onartuta, bigarren eztabaida hau benetan erreala dela irizten dio. Hau da, globalizazioa intelektualen "joku-eremu" eskusibo eta berarizko izatetik, jendea kalera ateraraztera pasa da; jendearen sentimenduekin lotua dago, nolabait, eta honek, desio gurenean eta sortzen ari den gizartearekin du zerikusia. —GIDDENS, A. (2001): *Hiriak, Arkitektura eta*

a) *Globalizazioa eta kontzeptuaren adiera-nahastea*

Popularitate berehalako eta ospe azkar horregatik globalizazioaren kontzeptua ez da beharko zukeen bezain argia. Apenas erabiltzetik etengabe erreferentzi egitera pasa den leloa izanagatik, hitza beraren erabilera eta ulermena, sarri askotan, ez dira modu egokiz kontestualizatzen ezta interpretatzen. Globalizazioaz hitz egitean, bada, esangura-nahaste handia egon ohi da. Izan ere,

"Globalizazioa, ziurrenik ere, azken —eta seguruenik datozen— urtetan okerren erabilitako, gutxien definitutako, eta gutxien konprenitutako hitza da, izar-lainozkoena, eta politikoki eraginkorrena". (Beck 1998:40)

Hartara, globalizazio *kontzeptuaren* gaineko definizioak ematera, batetik, eta *prozesu global multzoen* ulertze-moduak zein ondorioak azaldu edo iragartzera, bestetik, gizarte teorilari anitz azartu da. 80.eko hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera, bereziki, komunitate zientifikoak eskuarki erabili izan du hitz bera, prozesuan zehar zehaztasun eta ñabardura maila ezberdineko esanahiak bereganatu dituenak. Baina, guztien artetik, agian, Beck jauna izango da gogoangarriena bere argibideengatik⁴.

Gizartea XXI. mendean mintegiaren hasiera hitzalditik; Bizkaiko Diputazioan eta Guggenheim Museon. Bilbo. Jasoa dago albiste moduan in. *Euskaldunon Egunkaria*, 2001eko, apirilaren 24a, 34.orr—

⁴ Becken ekarpenak, nagusiki, globalizazioa aspektu ekonomikoetan amaitzen ez denaren argipena eskaintzen digu. *Globalismoa*, perspektiba ekonomizista soil batetik globalizazio prozesuen kudeaketa partikularra litzateke. Kontzepzio honen arabera merkatu mundialak zeregin politikoak ordezkatzeko litzateke, eta hartara, globalizazioaren dimentsionalitate aniztasuna dimentsio bakarrera, ekonomikora, erreduzituko luke. Gainerako aspektuak —globalizazio kulturala (bereziki gure interesekoa dena), globalizazio ekologikoa, globalizazio politikoa, globalizazio militarra; identitate eta espazio transnazionalen sorrerak...— globalizazio ekonomikoaren baitan eta baitatik ulertuko lirateke soilik. *Globalitateak*, osterak, gizarte mundial batean bizi garela esan nahiko luke, eta ondorioz, inongo herrialdek edota taldek besteengandik

Goiko zitaren jabeak, ezer baino aurren *globalitatea*, *globalizazioa* eta *globalismoa* bereiztu nahi izan ditu, kontzeptuen arteko bereizketa argigarri bat eskainiaz. Eta zinez da eskertzekoa soziologo alemaniarren ekarpena zentzu horretan, ezen globalizazioa ikuspegi ekonomizista, lineal eta alde batekora murriztetik urrun, *lotura eta espazio sozial transnazionalak sortzen, kultura lokalak berpizten eta hirugarren kultura batzuk lehen lerrora ekartzen dituen prozesu* bezala definitzen baitu (Beck 1998: 30), gure hurbilpenerako interesekoa den definizioa ekarriaz albora.

Globalizazioa, beraz, munduko erregio ezberdinek euren artean ezartzen dituzten *lotura ekonomiko, kultural, sozial zein politikoen prozesu multzo-oso*a dela ere azaldu digu Beckek; eta komunikabideak dira, iraultza teknologikoaren oraingoan, lurrekoak nahiz airekoak, uhinezkoak zein digitalak, amaraun-sare erraldoi bilakaturik lotura horiek sortzera eta nazio-estatuaren mugaz gaindiko unibertso ekonomiko, kultural eta sinboliko bateratua eraikitzen etorri direnak.

Horrenbestez, eta aspekturik ekonomikoenez gain, sustrai ezberdinek duten berariazko garrantzia gutxietsi gabe eta erabat aintzat harturik, globalizazio prozesuaren zati kontsideratzekoak liratezke ere⁵, besteak beste, honako ezaugarri edo dimentsio hauexek:

banandua bizitzeko ezintasuna adieraziko luke. Beste era batera esanda, forma ekonomiko, kultural eta politikoak etengabe nahastuz doazela esan nahi du, eta beraz, nazio-estatuaren eta gizarte nazionalaren batasuna apurtzen dela esan ere. Botere eta lehiakortasun harreman berriak ezartzean, alde batetik, nazio estatuaren unitate eta aktoreen, eta bestaldek, identitate, espazio, egoera eta prozesu sozial transnazionalen arteko gatazka emango da. *Globalizazioak*, azkenik, munduko erregio ezberdinek euren artean ezartzen dituzten lotura ekonomiko, kultural, sozial zein politikoen prozesu multzo-oso litzake. Prozesu multzo hauen arabera, nazio-estatu subiranoak aktore transnazionalekin, eta, euren botere aukera, orientazio eta identitateekin nahastuko lirateke. Guztia argipen xehetarako, ikus: BECK, U. (1998).

⁵ Bat dator, finean, Giddens Beckekin globalizazioa ekonomikoa izateaz gain, politikoa, teknologikoa eta kulturala ere badela esatean: "...no vacilaría en decir que la globalización, tal como la experimentamos, es en muchos aspectos no sólo nueva, sino revolucionaria. Pero no creo que ni los escépticos ni los radicales hayan comprendido adecuadamente qué es o cuáles son sus implicaciones para nosotros. Ambos grupos consideran el fenómeno casi exclusivamente en términos económicos. Es un error. La globalización es política, tecnológica y cultural, además de económica" (Giddens 2001: 23). Alabaina, Beckek bere liburuaren atal batean globalizazioaren dimentsio edo logika bakarraren alde egiten duten autoreen izenak aipatzean, Giddens aipatzen du guztien erreferentzi amankomun bezala, eta egia esan, oso tronpatua ez dabilenaren susmoak izateko arrazoirik badugu (Beck 1998: 55-56). Izan ere, London School of Economics-eko zuzendari eta gaur egungo laborismo britainiarren doktrinaren aita den Giddensi, globalizazioaren ikuspegi ekonomizistegia

- a) *mundializazio erregionalizatua* edo nazioarteko instituzio politiko eta aktore berrien sorrera: Ekonomiaren mundu mailako interdependentziak bultzatuta sortu diren estatu arteko aktore transnazionalen adibide ditugu, besteak beste, G7 (Zazpi Handiak), NDF (Nazioarteko Diru Funtsa), NMG (Nazioarteko Merkataritza Ganbera), MME (Munduko Merkataritza Erakundea), OME (Osasunerako Mundu Elkarte), NBE (Nazio Batuen Erakundea), FAO (Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundea), EB (Europako Batasuna), BZES (Banku Zentralen Europako Sistema), EDF (Europako Diru Funtsa), EDI (Europako Diru Institutua), EBZ (Europako Banku Zentrala), MEB (Europako Mendebaldeko Batasuna; erakunde militarra), EEJA (Europako Erkidegoko Justizia Auzitegia), EFTA (Europako Merkataritza Librerako Elkarte), edo ESKE (Europako Segurtasun eta Kooperaziorako Erakundea).
- b) giza eskubideen eta demokraziaren iraunaldiaren gaineko adostasuna gobernu sistema bezala: I-11ko atentatuen ondorengo histeria periodistiko eta gubernamentalaren ondoren, nazioarteko terrorismoaren aurkako koalizioaren sorrerarekin AEBetako Gobernuak nazioarteko politikan oinarri, premisa eta baldintza berriak ipini zituen: *terrorism, search and destroy*.
- d) txirotasun globalaren erronka itzela: 30 mila ume hiltzen dira egunero gosearen erruz, pobrezia globalizazioa migrazio fluxuen bitartez ere barreiatzen delarik.

nabaritzen baitzaio zenbait pasartetan. Irakurri bestela: "Y bien, ¿quién tiene razón en este debate? Creo que los radicales. El nivel de comercio mundial es hoy mucho mayor de lo que ha sido jamás y abarca un espectro mucho más amplio de bienes y servicios. Pero la mayor diferencia está en el nivel de flujos financieros y de capitales. Ajustada como está al dinero electrónico, la economía mundial de hoy no tiene paralelo en épocas anteriores. (...) la globalización se ha visto influida, sobre todo, por cambios en los sistemas de comunicación, que datan únicamente de finales de los años sesenta" (Giddens 2001:22-23).

- e) irudiaren kultura: Erreferentzi kultural nagusienak AEBetatik eratortzen diren nazioarteko entpresa erraldoietatik iristen zaizkigu; Metro-Goldwyn-Mayer, Columbia, Disney, Century Fox, Time Warner, MTV, Coca-Cola, McDonald's, edota Nike ditugu adibide, askoen artean.
- f) kontzientzia ekologiko eta elkartasun kontzientzia berrien sorrera: globalizazioak bultzatu duen gizarte loturen ahultzeak elkarte mota berriak sortarazi ditu, batik bat Gobernu Kanpoko Erakunde ugaritzea ekarri dutenak. Greenpeace, Global Green, First Food, Porto Alegereko Gizarte Foroa, ATTAC, Indymedia, edota zapatismoa bezalako mugimendu *proaktiboen* agerraldia (Castells) esaterako, horren adierazgarri genituzke.
- g) *Internet* bezalako komunikazio sareen sorrera: Teknologia informatikoaren konpetentziak eraginda gero eta ezagunagoak (entzunagoak) zaizkigu Microsoft, Netscape, Intel, WEBTV, AT&T, Cable & Wireless, TCI, edo IBM.

edota

- h) *glokalizazioa* eta identitate lokal eta kolektiboetarako itzulera: unibertsalaren partikularizazioa eta partikularren unibertsalizazioa aldi berean gertatzen ari direnez, industria kulturalak elkarreragin dialektiko horri erantzuten dio produktua merkaturatzen duenean (des-lokalizatuz eta ber-lokalizatuz); bestetik erlijioa, nazioa, etnia, hizkuntza, familia eta lokalitatearen izenean lubaki identitarioak eraikitzen dira, tradizioaren, "zinezkotasunaren" eta gertukoaren defentsan.

b) Globalizazioaren soziologia anitz eta osatuago baten beharraz

Soziologia garaikideak egungo gizartea endelgatzera emateko dituen errakuntzak, aurkitzen dituen zailtasunak eta adierazbiderako oztopoak aipatu ditugu orainartean. Gizarte garaikideari aurkezten ari zaizkion arrisku eta aukera berriak azaltzeko erabiltzen dituen tresna analitiko eta unibertso kontzeptualak, modernitate industrial-kapitalistaren tipologia eta eskema teoriko zaharretan dutela oinarri esan dugu.

Globalizazioaz hausnartzen dutenean, aldiz, gizarte zientzilari gehientsuenei ikuspegi deterministegia antzematen zaiela nabarmendu nahi izan da; esan nahi baita XX. mendeko bi korrante ideologiko nagusien (liberalismoaren eta marxismoaren) hegemoniari esker edo, globalizazioa interpretatzeko dimentsio edo logika bakarra, ekonomizista hain zuzen, gailendu dela.

Azken finean, globalizazioaren eta gizarte garaikidearen soziologiaren gaineko bibliografian oinarritzko eztabaida bat eman dela esan genezake, Marx vs Weber-en arteko kalapita historikoa errepikatu dela agerian geratu baita; gailentasun ekonomikoaren edo balorazio ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalen aniztasun teorikoaren artean hautatu behar izan dute gizarte teorilari ezberdinek.

Gehientsuenek, ordea, globalizazioaren ikuspegi eta logika *bakar* bat hobesten duten balorazioak egiteko joera izan dute⁶: Wallerstein⁷ edo Giddensentzako, adibidez, kapitalismoa da globalizazioaren motorra, eta, kapitalismoari loturik aztertzen denez gero, globalizazioa ikuspuntu ekonomikotik azaldu izan dute nagusiki; Castellsek, aldiz, globalizazio teknologiko eta informatiboa azpimarratu du bereziki, eta ezagutzaren, informazioaren eta sareen gizartean bizi garela nabarmendu nahi izan du egungo gizartea

⁶ Kontu honetan argipen bi egitea gustatuko litzaidake: 1) globalizazioaz egin irakurketa teoriko gehienak logika bakarreko balorazioak egin badituzte ere, *globalizazio prozesuaren kontraesanak*, eta *ondorioen aniztasunak* kontutan hartu izan dituzte, ia denek. Honela, Giddensek esaterako, globalizazio prozesua bere dimentsio teknoekonomikoan, batik bat, azaldu badu ere —gogora dezagun bestela; *On the Edge: living with global capitalism* (2000) edota bere zenbait ahapaldi—, beste gainontzeko aspektuetan izan eraginak kontutan hartu izan dituen bezala, globalizazio politikoaz,

interpretatzerakoan; Rosenau⁸, Gilpin eta Held, berriz, politika internazionalaren ikusmiratik arduratu dira batik bat geopolitikaren ardatz berriak hurbiltzen; eta Robertson, Friedman, Featherstone, Albrow, Appadurai, edo Urry, azkenik, teoria kulturalaren tradizioaren barruan mugitu izan dira glo(k)balizazioa aztertu eta azaltzerako orduan⁹.

Ondorioz, autore hauetako bakoitzak globalizazioaren dinamikaren oinarriak eta ondorio-eraginak mundu mailako zeregin instituzionalerako bakar batean ezarri izan dituztela esan daiteke: dela ekonomian, dela teknologian, dela politika internazionalan, ekologian, hizkuntzan nola kulturen. Gizarte garaikidea aldatzen darraiten prozesu global multzo guztien oinarri zein eraginak osoki barnebilduko lituzkeen teoria taxutuago baten faltan aurkitzen gara, honenbestez. Izan ere, nazionalismoen, hizkuntzen eta komunitate linguistikoen gaiak hasieratik bertatik kontutan hartzen ez dituen globalizazioaren teoria moderno bat —epe luzeko ikuspegi historiko batean oinarritutakoa, jakina— urri bezain murriztuta geratzen dela baiteritxot. Aldi berean, bestalde, hizkuntzen egoeraz edo nazionalismoenaz modu "ez global" batean jardutea eta eztabaidatzea gatazkatsu eta arazo sortaile izan daitekeela iruditzen zait.

teknologikoaz eta kulturalaz ere hitz egin izan digu. 2) Bestalde ere, gehientsuenek dimentsio bakarra lehenesten duten balorazioak egin badituzte ere, *teoria ekonomikoaren tradizioetik kanpo*, dimentsio teknologikoan, nazioartekoan edota kulturean oinarrituta egin izan dituzten globalizazioaren interpretazioak ere, egon badaude.

⁷ Wallerstein lehenetakoa izan zen 70eko hamarkadan gizarte zientziak globalizazioaren arazoarekin elkarlotzen, eta, berea da *sistema mundialaren* kontzeptua. Edozein kasutan, uste dut kontutan hartzekoa dela Wallersteinek berak esandakoa: "world-systems analysis is not a theory about the world. It is a protest against the ways in which social scientific enquiry was structured for all of us at its inception in the middle of the nineteenth century" (Ik. WALLERSTEIN, 1996)

⁸ Rosenauentzako, globalizazioak bere marku erreferentzialenean zera esan nahi du: gizateriak atzean utzi duela garai batean nazio-estatuak monopolizatzen eta agintzen zuten politika internazionalaren eskenatoki internazionala. Bere ustetan, orain politika post-internazionalaren garaia iritsi da, zeinean aktore nazional-estatalek, beste antolakunde internazionalekin, enpresa transnazionalekin eta mugimendu politiko, sozial eta baita ere transnazionalekin eskenatoki eta botere globalak konpartitu beharko dituzten.

⁹ Kultur zientzilaria hauek, unibertsalaren eta partikularren arteko erlazioaren zentraltasun eta garrantzia azpimarratzen dute globalizazio prozesua eta beronen adarkadurak ulertzerako orduan. Munduaren McDonaldizazioaren kontzeptu hain zabaldua hankaz gora jartzera etorri dira hauek. Globalizazio kulturalak ez duela mundua zertan homogeneoagoa egin deritzote, eta globalizazioak (euren ikuspegitik, kulturala noski!) *glokalizazioa* esan nahi duela, batez ere, defendatzen dute. Determinismo kulturalaren teorian lan erreferentzialaren bila dabilenarentzat, Ikus: ROBERTSON, 1992.

Horregatik guztiagatik, globalizazioaren dimentsionalitate aniztasuna garbiki azalduko duen globalizazioaren soziologia moderno eta teoria osatuago bat, oraindik, eraikitzeke dago. Eta hori, ene iritziz, diziplina arteko lankidetzatik baino ez da lortu ahalko.

III. GLOBALIZAZIOAREN ONDORIO-ERAGINAK

3. Globalizazioaren talka politiko eta kulturalaz

Globalizazioaren hurbilpen labur baten ostean bere ondorio-eraginak oro nabarmentzea egungo ordena mundial berria bere aniztasun eta konplexutasun guztian ezagutarazteko garrantzitsua bezain argigarria izan badaiteke ere, globalizazio prozesuak arlo politiko eta kulturean, zehazkiago identitate nazional eta tokian-tokiko nortasunean izaniko emaitza-efektuetan zentratuko naiz jarraian.

Esan gabe doa ez dagoela globalizazioaren balizko ezta benetazko ondorioei buruzko adostasunik. Horregatik, sinplifikatze aldera, ongi hutsaren eta gaizki hutsaren artean banatutako mundu-ikuskera manikeista baten bitartez, atal honen laugarren zatian azalduko ditut euskal kultura eta euskara bezalako hizkuntza gutxiagotuengan globalizazioaren prozesu geldiezin honek izango dituen ondorio-eraginei buruz eztabaidatzerakoan ageri diren elkarren aurkako iritzi nagusi biak. Lanaren laugarren atalerako utziko ditut, beraz, ordena linguistiko aktualak eskaintzen dituen aukerak eta mehatxuak.

Krisi ezaugarri zenbait

Behin II. Mundu Gerra amaituta, mendebaldeko egonkortasunak eta modernitatearen nagusitasunak apenas iraun zutela esan genezake. Izan ere, 1960. eko hamarkadaren bukaeraldera¹⁰ mendebaldearen hegemonia —baita amerikarrena ere— mundu sisteman ahituz joatean, oro har, moderniaiko identitatearen beherakada eragin baitzuen (Friedman 1990: 323; Beck 1998: 41).

¹⁰ Aberdeen-eko unibertsitatean (Eskozia) Globalizazioaren Ikerketarako Zentruaren zuzendari eta soziologia irakasle den Robertsonek, dentsitate eta konplexutasun globaleko egungo zirkunstantzietara historikoki nola iritsi garen azaltzeko azken mendeetako globalizazioaren faseak bereiztu ditu: XV. mendetik XVIII. mende erdira Europan hasirikoa "*the germinal phase*" litzateke; ordutik 1870eko hamarkadarartekoa "*the incipient phase*"; ordutik 1920ko hamarkadararte joango litzakena "*the take-off phase*"; ordutik 1960kora "*the struggle-for-hegemony phase*" litzateke; eta 1960ko hamarkadatik gure egunetarako azken epeak, aldiz, "*the uncertainty phase*". Globalizazioa, honela, oraingo kontua baino prozesu historiko bat dela azaldu nahi izan du Robertsonek, eta bide batez, 60ko hamarkadatik aurreragoko prozesu global multzoen ezjakintasunaz ohartarazi (ik. Robertson, 1990: 26-27). Epe honetatik aurrera, beraz, mendebaldearen nagusitasun galera eta sortuko den noraeza eta kontzientzi falta globala modernitatearen krisi, eta orobat, globalizazioaren fase ezezagun berri baten ataritik etorriko dira.

Ordutik hona, krisi ezaugarriak handitu baino ez dira egin. Eta areagotu gainera gizartearen arlo desberdinetan: sortzen ari den pentsaera berri nagusia postmodernitate izenez ezagutzen dena dugu¹¹; ekonomian neoliberalismoa, monetarismoa eta kontserbadurismoa gailendu dira ideologikoki; industrian informatika, elektronika eta hirugarren sektorearen nagusigoa azpimarra daitezke; telekomunikazioek distantziak murriztu eta loturak intentsifikatuz interdependentzia eragin dute; nazio-estatuen politikan kontserbadoretze prozesua igartzeaz gain, azken hauen hegemonia ere goitik eta behetik jasaniko presioaren eraginez zulapetuagoa aurkitzen ari da; eta kulturen aldaketa hauek guztiak islatuz, eredu bakarraren aurka eklektizismoa nagusitu da.

Krisian dagoen mendebaldeko modernitatearen eta sortzen ari den "bigarren modernitatea"-ren artean, beraz, gizartea ulertzeko modu ezberdintasunak daudela pentsa daiteke: gizarte *nazional* batetik gizarte *mundial* batera igarotzen ari gara, eta, azken honek ez bide du identitaterik (Beck 1998: 145).

Globalizazioaren etorrerarekin bat, modernitatearen lehen premisa behera erortzen ari dela esan digu soziologo alemaniarrek, eta eguneroko egin beharren dimentsio ezberdinetan (ekonomian, informazioan, ekologian, teknikan, gatazka transkulturaletan eta gizarte zibilean) muga galera suposatzen omen du horrek¹². Bada, nazio-estatuen eta gizarte nazionalen moduko toki ertsi eta mugatueta bizi eta ekiteko ideia baztertuta geratzen ari dela ondorioztatu dute analista sozial anitzek.

¹¹ Pentsaera berri nagusi honen ezaugarri nagusientzat historizitatearen eragin ahultzea, azalekotasuna, ardura kolektibo eta politikoei axola eza, identitate kolektiboaren ahultzea, maila abstraktuagoak diren kulturaren eta nazioaren ahaztura eta antzerakoak lirateke. (Bilketa honetarako zenbait ezaugarri ondoko lanetatik hartu ditut: F. Jameson, 1991; P. Anderson, 2000; J. Atxabal, 1992). Hala ere, aspekto positiboak ere seinaltatu behar direla uste dut, hau da, zentralizazioaren, uniformizazioaren eta determinazio historikoaren ildotik atera, eta zatiaren, dezentralizazioaren eta aniztasunaren errebindikazioa egiteko joera azaldu da.

¹² Modernitatea identitate kulturean (etnia/herria), espazioan eta Estatuaren batasunean oinarrituta antolatuta zenez, gizarte nazionala kideen identitatea identitate nazionala zen. Modernia puskatzen ari denetik baina, mundu berria (gizarte *mundialean*) identitateak galduta eta disolbatzen ari direla esaten digute, eta identitatearen ordean, etorkizuneko aldarrikapenak mestizaia, herritartasuna eta kosmopolitismoa direla argudiatzen zaigu, izan ere gaur egungo joeraren muina interdependentzia eta hibridotasunean baitago.

Garbi hitz egiten hasi gaitezen: jokoan dagoena identitatea da. Eta, zehazkiago, benetan mehatxatua dagoena identitate nazionala eta tokian-tokikoa. Globalizazioak klase borroka eta marxismoaren garaitik ezagutzen ez zen premia, gizartearen ulerkortasunaren eta antolaketaren eztabaida debate publikoaren lehen lerroan ezartzea lortu du. Egungo krisia, baina, ez da klaseena; gizarte mundialaren kaos eta ezezagutzatik, aldaketa prozesu eta norabide ezatik eratortzen den krisia da. Gaur egungo krisia, azken finean, identitate arazo bat da.

3.1. Identitatea arazo bezala

Globalizazioak identitatean duen talka ulertzeko, kulturaren arreta jartzeak berebiziko garrantzia izan ohi du, kulturaren boterea identitatea sortzeko eta moldatzeko duen ahalmenean baitago. Esaterako, kapitalismo industrialaren gizartean, klase ezberdintasun handiko gizarte ordenu zatikatuan, kulturen arteko polarizazio garbi bat ematen zen. Horrela, Miarritze, Paris, Zurich, Manchester, Düsseldorf, Viena edo Milango burgesia eta langile familietako kideak bi mundu desberdinei zegozkien; hizkuntza ezberdinez mintzo ziren, desberdin janzten, jaten eta jokatzeko zuten. Euren arteko interpenetrazioa, honela, eskasa zela oso esan genezake.

Bizkitartean, nazio-estatuen barneko klase menperatu eta gune geografiko marginalak —periferiak—, distantzi sozialak bermatzen zien autonomia kulturalaz

gozatzen zuten. Isolamendu erlatibo horrek identitatea mantentzeko aukera ematen zien. Estatu zentralak etnikoki ezberdindutako erregioetan arauak, legeak hizkuntza eta poliziak inposatu ahal bazituen ere, ezin zuen bere kontrolik eragin zinez errotu eta txertaturiko kultura lokaletan.

II. Mundu Gerraren ostean mendebaldeko gizarteek jasaniko modernizazio prozesu ezberdinenen ondorioz baina, tokian-tokiko nortasun eta kultura orok, eragin zuzena jasan behar izan dute. Warwickeko Unibertsitatean (Britainia Handia) Harreman Etnikoen Ikerketarako Zentruan ikerlari izan den Montserrat Guibernauk azaldu du aldaketa hau:

"La estrategia principal utilizada para preservar la identidad es el aislamiento. Las culturas modernas no pueden permitirse el aislamiento: la globalización extiende las interconexiones y provoca que individuos pertenecientes a distintas culturas sean conscientes de las interdependencias, mientras que al mismo tiempo las crea.

(...) La extensión de las interrelaciones globales lleva a una persistente interacción e intercambio culturales que producen tanto homogeneidad como desorden cultural". (Guibernau 1996: 151-147)

Zatikapen etniko eta kulturala eta homogeneizazio modernista, beraz, ez dira egungo munduan gertatzen ari denaz dauden bi ikuspuntu kontrajarriak; errealitate globalaren bi tendentzia dira gehiago. Kultura modernoak elkarreragin eta ordezkapen kulturalaren zirimolan murgildu dira, eta zokoratzerik baimendu ezin dutenez oraingoan, homogeneizazio eta heterogeneizazioaren dialektikan sartuak dira. Informazioak zuzenduriko gizarte transnazionalaren sareetan txertatuak izan direnean hizkuntza

estandarizatuen sarrerak —ikus-entzutezkoak barne—, emigrazioak¹³, eta masa turismoak eragiten dien mehatxuei aurre egin beharra izan diete kultura lokal eta gutxiagotuek (Featherstone 1990; Robertson 1992; Friedman 1994). Identitate nazionalak, ostera, besteak beste diasporako egoeraren eta emigrazioaren situazioaren emaitza den barne aniztasuna izan dute aurkari.

Gizartearen barne aniztasuna, bada, —polietnizitatea (McNeill 1986), multikulturalitatea, multiarrazialitatea, multikulturalismoa edo pluraltasun kulturala deitu izan dena— joera, baldintza eta inguruabar globaletara estuki lotua dago. Multikulturalitate "nazionala" eta, zentzu ideologikoago batean, multikulturalismoa gai global eta transnazonaletara sakonki loturik eta zeharo nahaspilaturik aurkitzen dira. Nazionalitate, komunitate linguistiko, nazionalismo, lokalismo eta identitate nazionala edo tokian tokikoa bezalako gai aktualak ezin dira heldu globalitateari kasu egin gabe. Eta, XX. mende amaieran hiritartasunarekin zerikusia zuten galderak ere eztabaidaren zati dira. Modu bizi eta azkarrean areagotzen doan bibliografia garaikidearekin egingo dugu topo hemen ere: hiritartasun postnazionala, supranazionala edo globala.

Eremu analitiko honetan, beraz, identitate nazionalaren eta tokian tokikoaren *desterritorializazioa* gogoan hartzeko garrantzizko hausnarketa da (Jacobson 1996). Hori dela eta, *nazionalak* baino gehiago *halfies*-ak (Abu-Lughod 1991) dira egungo hiritarrak, bai eta interes akademiko handiagoa sortzen dutenak ere; azken hauek atxikitze batekoa dute erdia eta adskripzio bestekoa beste erdia, hau da, gizabanakook ez daude prest talde bakar bateko kide bakar lez izendatuak izateko. Pertenentzi anitz, identitate konpartitu eta

¹³ Mendebaldeko Europak 20 miloi immigrante barnebildu zituen II. Mundu Gerra ondorengo hiru hamarkadetan zehar. Kopurua altuagoa zatekeen gainera, Stalinen burdinezko oihala existituko ez balitz.

dependentzi sakabanatuak (Rubert de Ventós 1999) integratzen dituzten hiritarrak lirateke, hortaz, *halfies*-ak. Eta gizabanako garaikidea ere horrela bilakatzekotan da.

3.2. Globalizazioaren ondorio politikoak

Gobalizazioaren talka politikoak eragina izan du eta hizpide bihurtu da, bereziki, nazio-estatu modernoetan. Eta hori, ikusi besterik ez dago Europar Batasunarentzat buruzagi ezberdinek marraztu dituzten diseinuetan¹⁴. Teorilari postmoderno gehienek, ordea, nazio-estatuaren garaia amaitzearen dela azpimarratzen dute, eta ekonomiaren globalizazioak egitura politiko berriak beharko dituela kexatzen dira, argudiatu baino gehiago.

Europara mugatzearen eta globalizazioaren talka politikoa azaltze aldera, lau arrazoi eman genitzazke, besteak beste, zalantzan jarritako subiranotasun estatala ulertarazteko:

¹⁴ 2001eko maiatzean zehar Europar Batasunaren (EB) etorkizunari buruzko proposamen desberdinak mahaigaineratu zituzten buruzagi ezberdinek, eta ika-mika eta zalapartarik handiena nazio-estatuak jokatu beharreko paperaren inguruan piztu zen: Schröder alemaniarra nazio-estatuari indarra kenduz diseinu zehatza egin zuen bakarra izan zen bitartean, Jospin, Schroeder eta Chirac nazio-estatuaren federazio baten aldeko azaldu ziren. Hau argudiatzeko, kurioa da Jospin-ek esana: "Europa es ante todo un proyecto político, un contenido antes que un recipiente". Nazio-estatuaren bigentzia dago eztabaidagai, eta hor, Jospin-ek frantziar tradizio jakobinoaren aldeko izanik, buruzagi alemanak nazio-estatuaren eginkizuna txikiagotzeko proposatutako puntu guztien aurka azaltzeaz gain, Europa federala guztiz errefusatu du. Frantziar nazionalista amorratuaren moduan jokatu du Jospin-ek: "Europaren alde nago, baina nire nazioari lotuta

- 1) Autokontzientzia ekonomiko sendoko gizarte eta nazio-estatuak, larriki eragindu eta mehatxatuak aurkitzen dira kanpotik datorren merkatu mundialaren globalizazioaren erruz.
- 2) Frantzia eta Alemania bezalako nazio-estatu asistentzialak, AEBak eta Britainia Handia ez bezala, globalizazioarekin kaltetuak ateratzen dira.
- 3) Espazio homogeen, itxi, eta nazional-estatalari iharrausten dio globalizazioak.
- 4) Batik bat, globalizazioak *desnazionalizazioa* esan nahi du.

"Burujabetza" kontzeptuaren debaluazioa da, bada, talka politikoaren eragin nagusia. Burujabetza jadanik ez bide da buruaskitasuna. Gero eta berdinagoak gara gizarte mundialaren sareetan. Eta identitate eta askatasun kontzeptuek gaur egun bizi duten momentu ahulen adierazlea "nazio-estatuaren krisia" deitzen dutena da. Esaten denez nazio-estatuak goitik eta behetik sartu dira krisian. Goitik, nazio-estatuak beren betiko askatasunaren galera jasaten dutelako, mundua "benetan" gobernatzen duten super-potentzien erruz¹⁵. Eta behetik, nazio-estatuak identitatearen galera jasaten ari direlako, liberalizazio kulturalaren, etnonazionalismoen eta interkomunikazioaren eraginez.

Kultur teorilarien artean globalizazioaren eraginak aztertzen aintzindari den Roland Robertsonen ildotik unibertsalismoa eta lokalismoa batera doazela aintzat hartzen badugu (Robertson 1992:177-178), estatu arteko erakundeak osatzen eta bultzatzen diren bezala estatu azpikoak ere ugalduz doazela errazago ulertu daiteke.

jarraitzen dut". Bada, dirudienek, ez dute egungo nazio-estatuak gaingintzeko edo "herrien Europa" deitu izan den horretan oinarritutako batasunerantz jotzeko asmorik.

¹⁵ Nazio-estatuak subirautza eta sustantzia galtzen dute merkatu komun europarraren markotik baztertuak izatean, eta hau gainera, dimentsio guztietan ematen da: errekurso finantzioetan, konfigurazio politiko eta ekonomikozko boterean, politika informatibo eta kulturalen, hiritarren eguneroko identifikazioan

Nazio-estatuaren zulapetze hori berori modu argigarrian azaldu digu ere Berkeley Unibertsitatean irakasle katedraduna den Manuel Castellsek, 12 urte igaro behar izan dituen arren bere lan erraldoia burutzen:

"...el estado-nación cada vez está mas sometido a la competencia más sutil y más preocupante de fuentes de poder que no están definidas y, a veces, son indefinibles. Son redes de capital, producción, comunicación, crimen, instituciones internacionales, aparatos militares supranacionales, organizaciones no gubernamentales, religiones transnacionales y movimientos de opinión pública. Y por debajo del estado están las comunidades, las tribus, las localidades, los cultos y las bandas. Así que, aunque los estados-nación continúan existiendo, y seguirán haciéndolo en el futuro previsible, son, y cada vez lo serán más, *nodos de una red de poder más amplia*".

(Castells 1998: 334)

Estatua, hortaz, gaur egun ezagutzen dugun egituren, nazio-estatu moduan alegia, krisian omen dago¹⁶. Castellsentzat botere eta kontra-botere sare bateko zati bilakatu direnean, estatuak beren arkitektura molde tradizionalen indarge geratu dira, eta, nazionalismoak tradizionalki kultura nazionala bermatzeko erabili duen egituraketa politikoa ez bide da nahikoa egungo betebeharrei erantzuteko. Nazionalismo klasikoaren oinarritzko abiaburua (hau da, mundu garaikidean nazioak eta nazio-estatuak gainjarri behar direla) zalantzan jartzen ari dela esaten da orain¹⁷. Eta ziurrenik ere, eraldaketa hauen ondorioz, hiritartasuna eta identifikazio nazionala ezberdindu egingo direla pentsa daiteke (Anderson 1998).

Nazio-estatuaren homogeneizazioaren kudeaketa eta identitate nazionalaren berma zalantzakorrakoak bilakatuz joango dira. Momentu hauetan gainera, nazio-estatuak ekoiztutako identitate nazionalaren patua ez da argi ikusten. Gizarte batzuetan (Kanadan edo Australian, kasu) multikulturalitateak identitate nazionalaren forma politiko nagusiaren estatusa hartu badu ere, munduko gizarte askok multikulturalitate/multikulturalismoaren diskurtsoaren inguruan identitate nazionala sortzeko trantsizio arazotsuan aurkitzen dira.

Orain arte, gizakien arteko harremanak nazio egituren arabera ulertzen baziren gehienbat, orain berriz, maila horri lokalagoak eta nazioartekoagoak direnak ere gaineratu behar zaizkio. Globalizazioa lokalizazio prozesuekin batera ulertu behar dugu, eta eraldaketa lokalak globalizazioaren zati direla kontsideratu (Friedman 1990; Guibernau 1996). Honela, maila lokalean, gizabanakoak hurbilarekiko duen ardura handiagoari erantzun behar dio. Baztergarri dira orain estatu zentraletik datozen plangintza edo agindu

¹⁶ Ez dira berdindu behar krisia eta hondamendia. Soziologo kataluniarrarentzat nazio-estatua berregituratzen ari baita egoera berri batera, baina desagertzeko zorian egon gabe.

¹⁷ Nazionalismo metodologiko hau zalantzan egotearen arrazoi nagusiak, 1) nazioarteko migrazioa eta 2) komunikabideen iraultza sakona badira ere, beste zio batzuk ere aurki genitzake: izan ere, enpresa transnazionalak lan boltsak sortzean,

asko, eta alderantzizko jokaera eskatzen da: behetik gorakoa. Lehen estatuak maila honetan hartzen zituen eskumen asko horrela bereganatzen dira. Nazioarteko mailan, bestalde, estatu arteko erakundeek gero eta botere gehiago maneiatzen dute eta zalantzan ipintzen dute nazio-estatuaren subiranotasun absolutua (militar arloan ez da gai bere mugak defendatzeko, ekonomian erabaki nagusiak nazioarteko esparruan hartzen dira...).

Aldaketak gertatzen ari direla gauza nabaria da, baina jakin behar da nahikoa izango diren oraingo nazio-estatuaren hondamena eragiteko ala beraren bermoldaketa soilik ekarriko duten. Batzuek, Ernest Gellner-ek kasu, ardura ekonomikoaren kaltetan estatuaren kontzeptu politikoago baterantz abiatuko garela irizten diote. Dena dela, etorkizunean nazio-estatu homogeneorik aurkitzea gero eta zailagoa izango dela aurreikus dezakegu, izan ere *Estatu bat/kultura bat* binomioak apurtzera jotzen du eta. Robertson, *Identitate nazionala eta globalizazioa: iruzur garaikidea* artikuluan ere horrela mintzo da:

"el Estado-nación ha experimentado un cambio en su componente principal: de proponer una fuerte tendencia hacia la homogeneidad nacional, a finales del siglo XX, se vislumbra una fuerte tendencia hacia la heterogeneidad nacional, lo cual ha desestabilizado y problematizado cada vez más las concepciones que se tienen de la identidad nacional".
(Robertson, [http](http://...), 1996)

Nazio-estatuaren barne zatiketa areagotzeak ez du ordea arkitektura politiko moderno-industrialaren hondaketa ekarri, galbidean jarri badezake ere. Egitura nagusia oraindik ere, nazio-estatua da, bai, baina eskualde batzuetan gainditze bidean dago

boteretsuenaren legeari erantzuten dion *darwinismo estatala* indarrean dagoelako, Smith-ek iradoki legez:

"We are entering a new world of economic giants and superpowers, of multinationals and military blocs, of vast communications networks and international division of labour. In such a world, there is no room for medium or small-scale states, let alone submerged ethnic communities and their competing and divisive nationalisms".

(Smith1990: 174)

Superpotentzia eta erraldoi ekonomikoen munduan, multinazionalen nagusitasun eta militar bloke eta komunikazio sare handien altzoan, ezin da jakin zein egiturak gaindituko eta ordezkatuko duen nazio estatua. Mundu estatuantz abiatzearena, ene iritziz, guztiz baztertzekoa litzateke. I-11ko erasoek mundu ikuskera ezberdineko muturren arteko larriagotzea ekarri du, eta pentsa daiteke munduaren norabidea gidatu nahiko luketen iparamerikarren aurka erreakzio ugari sortuko liratekeela. Kontrako alternatiba zatikatzea da, batasun politikoa ezberdintasun kulturalen gainean eraikitzea, kontinente edota eskualde estatuak sortzea, eta horrelako aukera batean ikusten dute askok Europaren etorkizuna¹⁸.

Amerikarren modeloa jarraitzekotan gainera, Smith-en aburuz:

supernazionalen eta subnazionalen sorrera dakar: Europar Batasuna eta Euskadi adb.

¹⁸ Maila lokal eta unibertsalaren artean bada oraindik gertagarri den egitura bat: mundu-eskualdeak. Hauen abiapuntua integrazio ekonomikoa izaten da, eta honen adibiderik entzun eta garatuena Europako Batasuna genuke. Hala ere, horrelako egituren aldeko saioak Ipar Amerikan, Hego Amerikan eta Asiako Ekialdean egin izan dira. Honela, eskualde hauek euren interesak defendatzen ahalegintzen direnez beste eskualdeen kaltetan, mundu estatuaren aukerak gutxitzen direla suposa dezakegu. Eskualde erakunde hauek, hortaz, mundu mailako lehiari aurre egitea dute helburu nagusia, eta urrun geratzen dira, momentuz, integrazio estuagoetatik

"this new formulation of European community depends on the fashionable notion of 'unity in diversity', which suggests the possibility of cultural imperialism coexisting with vital cultural identities". (Smith 1990: 174)

Kontraesan, dialektika eta paradoxen artean bizitzera bideratuak gaudela aurreikusi dezakegun zerbait da. Identitate nazional, transnazional; lokal, global; partikular eta, unibertsal zein kosmopolitaren arteko harreman dialektikotik jantziko baita XXI. mendeko gizaki garaikidea.

Gainerakoan, globalizazioarekin datorkigun teknologia berrien hedapenarekin demokraziak sendotu egingo direla pentsatzen duenik ere bada (Toffler 1999). Informazioa zabaldu eta lortzeko aukera gehiago egongo denez, hautesleek informazio gehiago eta hobetagoa izango dute bozkatu, politikariei eskakizun zehatzak egin edota erantzunkizunak eskatzeko. Etxetik mugitu gabe herrigintzan parte hartzeko aukerak erraztu eta arindu egingo dira, eta horrek, boterea eta hitza herriarengana itzuliko direla, hau da, demokrazia zuzenera hurbilduko garela esan nahi du. Bozka elektronikoak, bideokonferentzia bitartez egindako bilerek, batzar elektroniko eta abarrek, gizakiak arazo publikoetan berriro ere sartzea ahalbidetuko dute. Teknologia berriek, beraz, demokrazia sendoagoak eta hobetoagoak ekarriko dizkigute pertsonaren eta gizartearen zerbitzuan jar daitezkeen indar askatzaile diren aldetik.

Honenbestez, teknologia berriek, bereziki *Internet*-ek, pentsamendu bakarra eta homogeneousutasun kulturala bultzatuko dutela azpimarratzen dutenen aurka, autore batzuk esaten dute *Internet* arrazionaltasun berria dela, komunikazio berria, mundu osoarekiko kontaktua izateko aukera berria eta munduko ordena demokratiko berriaren bultzatzaile izango dena. Izan ere, tresna horren bitartez mundu mailan oso erraz bultzatu daitezke elkartzasun eta salaketa kanpainak:

- Pinochet Espainian epaitzeko mundu mailako kanpaina *Internet*ez bultzatu zen.
- Globalizazioaren aurkako taldeek Seattle-en edo Genovan herrialde aberatsek egin dituzten goi-bileraren boikota posible izan dira mundu mailako Gobernu Kanpoko Erakundeak *Internet*-en laguntzaz harremanetan jarri eta antolatze gaitasuna izan dutelako.
- Afganistanen aurkako gerran, beste modu batean ezagutuko ez genituzkeen informazioak lortu ahal izan ditugu. Arazo handiekin bada ere, teknologia berriekin gerraren inguruan AEBek jarri duten zentsura gainditzeko aukera daukagu orain (www.indymedia.org).

Ondorio baikorren artean ere, mundializazioak bultzatu duen gizarte loturen ahultzeak elkarte mota berriak sortarazi dituela ezin da ahortzi. Azken urteotan ezagutu dugun Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) ugaritzea horren adierazle argia izango litzateke (Hassard 1998).

Honekin batera, zenbait analista sozialen ustez, munduko kultura eta herriak pizten edo kontzientzia hartzen ari dira, euren nortasuna gorde eta etorkizunean ere bermatzeko borrokan. Globalizazioarekin nagusitzen ari den homogeneousutasun eta inperialismo kulturalaren aurrean, beraz, kultura eta herri txikien, etnonazionalismoen eta identitate politiken berpizkundea gertatzen ari da.

Paradoxa bailitzan azaldu digu Friedman-ek nola

"global decentralization is tantamount to cultural renaissance. Liberation and self-determination, hysterical fanaticism and increasing border conflicts, all go hand in hand with an ever-increasing multinationalization of world market products" (1990: 312).

Bada, modu beretsutik azaltzen du Ortegak ere:

"La globalización produce dos fenómenos que pueden parecer contradictorios: una cierta homogeneización, que no es sólo occidentalización y un resurgir de las identidades locales. Lo que se viene a definir como *la red y el ser*. Globalización y búsqueda de identidades son dos caras de una misma moneda. La apariencia de un mundo sin fronteras, la llegada de la modernización y la revolución tecnológica, en muchos casos produce angustias derivadas de la pérdida del sentido de pertenencia, lo cual a su vez lleva al resurgir de los particularismos, llámense nacionalismos o fundamentalismos, que, aunque vienen de lejos, han acentuado la globalización" (2000: 101).

Globalizazioak eragiten duen harremanen homogeneizazioak, bada, partikularismoen¹⁹ oldartzea edo berpiztea —ezen ez *sorrera*— ekarri duela esatea ez da gehiegizko; indigenen eskubideen inguruko gatazka, esaterako, Mexikon XIX. mendetik lozorroan zegoen arazoa, horren lekuko kontsidera genezake. Urteetan eltze batean irekiten egon izan balitz bezala, politika neoliberalaren emaitza den TLCaren aplikapenaren egun berean, 1994ko urtarrilaren lehenean, gordintasun osoz lehertu zen indigenismoaren aldarria, oraingoan Askapen Nazionalerako Armada Zapatistaren (EZLN) altxamenduarekin.

Azkenik, ekonomiaren mundializazioak eta teknologia berriek herrialde eta nazio txikien eskumen politikoa handituko dutela diotenak ere, globalizazioaren ondorio politiko baikorrak azpimarratzen dituztenen multzo honetan sartu ditzazkegu. Horren adierazle lirarteke, hain zuzen ere, erabakiak hartu eta boterearengan eragiteko Europan barrena sortu diren eta gero eta gaitasun politiko handiagoa duten erakunde autonomikoak (Eskozia, Katalunia, Korsika eta Galeseko edo EAEko legebiltzarrak, kasu).

¹⁹ Partikularismoek hitz egitean, maila lokalean sorturiko identitatez (lokalismoek) ari naiz oro har: etno-nazionalismoak, fundamentalismoak, borroka sektorialak, indigenismoa eta antzerakoak, zaku berean sartu daitezkeen adierazpideak direla deritzot. Izan ere, globalismoa eta kosmopolitismoa desafiitzen duten identitate kolektiboko adierazpideak baitira guztiak. Castells-ek baina, bereiztu izan ditu *mugimendu proaktiboak* eta *mugimendu errektiboak*: proaktiboek, feminismoak eta ekologismoak kasu, giza harremanak mailarik oinarritzkoenean eraldatu nahi dituzte. Errektiboek aldiz, etnia, nazio, erlijio, familia edo lokalitatearen izenean, erresistentzia lubakiak eraikitzen dituztela dio (Castells, 1998: 24). Giddens-ek, partikularismoak baino fundamentalismoak deitzea nahiago duelarik, fundamentalismo hitza erlijio, identitate etniko, eta nazionalismoaren esparruko lokalismo moetak adierazteko erabiltzen du, eta berarentzako, fundamentalismook globalizazioaren sorkuntzak dira, errektzioak baino gehiago. Ildo beretsutik, Robertsonek (1992:175) zera dio: "It tends to involve a focus on fundamentalism as a reaction to, rather than as an aspect - or, indeed, a creation- of, globalization; (...) This does not mean that the notion of fundamentalism as reaction or resistance is thereby relinquished, but that that possibility is now viewed in a more general frame". Ene ustez, ezin genitza ez globalizazioaren erantzun ezta sorkuntza *soiltzat* ulertu. Gehiago dira sustrai premoderno edo etnikoko komunitate historiko lokalen egungo adierazpen oldarkorrak.

3.3. Glokalizazioa eta globalizazioaren ondorio kulturalak

Honaino iritsita, unibertsalaren eta partikularren arteko harremana globalizazio prozesuaren eta beronen ondorio kultural eta linguistikoen gure ulerkortasunerako erreferentzi ezinbestekoa delakoan nago²⁰.

Gaur egungo globalizazioa, bada, kultur teorilari batzuekin bat etorriaz, ezin da soilik baterakortasun zentzuz konprenitu, ezta tokian tokiko kultura eta identitate lokala irentsiko lukeen prozesu orojale bezala ere. Aitzitik, homogeneousazioaren presioari ezberdintasun heterogeneoko milaka adierazpen lokalek eusten diotela defendatze dute zenbaitzuek (Young 2002).

Bikoiztasun hau, kapitalismo kontsumitzailean igartzen da, mundu mailako horniketa, batetik, eta eskaera partikularra, bestetik, batzen dituelako; kapitalismo garaiki-deak estatudun, klasedun, generodun eta gizartedun ezaugarriak dituen merkatu partikularretara egokitzen du globaltasuna²¹. Industriak, azken finean, kultura bakoitza txertatu nahi du, eta globalizazioa tokian tokiko ohiturei egokitzean datza. Honela irudikatzen du Robertson-ek:

²⁰ Globalizazioa eta baterakortasuna batera aurkeztu ohi diren modu berean, badago joerarik —eta arriskurik— globalizazioa unibertsalismoarekin nahasteko. Globalizazioa baina, joera orokorra da, eta unibertsalismoa, berriz, gehiago da jarrera intelektual eta kontziente bat.

²¹ Globalizazioaren egokipen lokal horri *glokalizazio* izena ematen dio Robertsonek, baina hitza bera 80. hamarkadan ekonomilari japonesez *dochakuka* bezala ezagutarazi zutela diote batzuek, eta Marc Humbert ikerlari frantsesak iradoki zuela diote besteek. Edonola ere, globalizazioa orokorra litzateke, eta glokalizazioa haren zati bat. Robertsonen hitzetan, "Glocalization means the simultaneity —the co-presence— of both universalizing and particularizing tendencies". Glokal terminoaren erabilera zein glokalizazioa adjektiboa, bestalde, The Oxford Dictionary of New Words-ek (1991:34) aintzatesten ditu (ik. ROBERTSON, 1992: 173 . orria kontzeptuaren sorrera ulertzeko, eta ROBERTSON, 1994 aldiz kontzeptuaren sakontze baterako).

"Global capitalism both promotes and is conditioned by cultural homogeneity and cultural heterogeneity. The production and consolidation of difference and variety is an essential ingredient of contemporary capitalism, which is, in any case, increasingly involved with a growing variety of micro-markets" (Robertson, 1992: 173)

Mundu kapitalismo globalizatuak aniztasuna eta lokalismoa behar ditu. Hala ere, horrek ez du esan nahi lokala era tradizionalistan ulertzen denik. Aitzitik, ohiturak des-lokalizatu eta ber-lokalizatu egiten dira. Atzerago kultura bakoitza espazio eta denbora partikular bati bazegokion, kultura lokala jada ez dagokio kultura bakar bati bakarrik, globaltasunean sartuta geratzen da eta: leku batean baino gehiago ager daiteke. Baina leku desberdinetan agertu arren, ez dago kultura globalik²².

Hain zuzen, eztabaida hau, ea kultura global bateratu baterantz edo, kontrakora, kultura partikularren berpizkunderantz goazen, oinarrizko eztabaida bihurtu da globalizazioaren talka kulturalaz jardutean.

"Identitate global" batek, baina, herri guztien arteko komunitate zentzu baten sorrera izan beharko luke helburu. Memoria amankomunik ez dago, ordea. Are gehiago; balizko "identitate global" bat eraikiko luketen kulturek historia bananduak, eta, askotan, antagonikoak ere izan dituzte eta badituzte. Gainera, zein hizkuntza hartu beharko litzateke hizkuntza "global" moduan? Egia da ingelesa, gaztelera, mandarin txinera, arabiera edota errusiera milioika pertsonen hitz egiten dutela, baina ez dugu hizkuntza global

²² Kultura globalaren ideiak praktikoki ezinezkoa dirudi: inongo espazio eta denboran ez du loturarik, eta beraz, kontestu gabea izango litzakeela pentsa daiteke. Iragan edo historiarik ez izatean, zerbait kalkulatu eta artifiziala izango litzateke. Ildo honetatik, Smith-ek, kultura global bat eraikitzeke zailtasunez honela dio: "The central difficulty in any project to construct a global identity and hence a global culture, is that collective identity, like imagery and culture, is always historically specific because it is based on shared memories and sense of continuity between generations" (in SMITH, 1990: 180).

amankomunik eta konpartiturik. Agian ingelesa bilakatu da *lingua franca*, baino izatekotan, elite batzuen artean soilik, eta dakigunez "identitate global" batek jende arrunta barnebildu behar du. Eta are garrantzitsuagoa dena, oinarri popular eta atxikimendu sozial bat izan.

Bestalde, besteenganako desberdintasuna "besteak" daudenean soilik da posible, eta "identitate globala"-ren hipotesiak identitate partikular eta lokalen ez onartzea edo ordezkatzeari esan nahiko luke. Errealitate soziologikoak oso bestelako itxura du baina. Identitate lokal, etno-nazionalismo, eta identitatearen politikek²³ azkartze bat bizi dute eta.

Egia da egungo globalizazioa inoiz aurretik izan den begi bistakoena eta pertsonalena dela. Kultura amerikarra nonahi ageri zaigu eta munduan zehar gehien hedatu diren pelikula, musika, TB programa eta teknologia informatiboek ideologia amerikarra erreproduzitzen dute aldioro. *Koka-Kolonizazio* eskenatokia deitu izan diote egungoari, termino kulturaletan hitz eginda (Young 2002).

Robertson, aitzitik, ez da homogeneousasun kulturala eta munduaren amerikanizazioa (*McDonaldizazioa*, *Disneyfikazioa*) parekatzearen aldeko. Pentsalari batzuk, dena den, bi prozesuak batera gertatzen direla irizten diote; balio, ikuspuntu eta kultura amerikarra indartzen ari dira munduan, eta gauzak iparramerikarren ikusgune ekonomiko eta politikotik ulertzeko joera nagusitzen ari dela uste dute.

Hitz gutxitan esateko, *globalizazioa inperialismo amerikarraren aurpegi berria da*. Eta adibide asko daude munduaren amerikanizazioa gertatzen ari dela erakusten dutenak:

- Ipar Amerikako agintariak munduan zabaltzen den ia informazio guztia kontrolatzen dute euren interes ekonomiko, politiko eta militarren arabera

²³ Identitatearen politika nazionalismoek —kulturek gehienbat—, gizarte modernoa desafiatzeko defendatzen duten jardunbidea izango litzateke. Bestela esanda, etnizitatean oinarritutako desberdintasun kulturalaren aldarria da, baina badu osagai aurrerakoirik: honelako nazionalismoak mugimendu bakezale, ekologista eta feministen alboan agertu ohi dira; beti ere, desberdinen eta ahulenen defentsan. Identitatearen politika honen adierazpen esanguratsuenetakoa dugu mugimendu zapatista, eta zer esanik ez, Marcos-en izkribuak.

pentsamendu bakarra inposatzeko. Gaur egun, planeta osoan, hara eta hona dabiltzan albiste guztien %65ek AEBetan dute sorrera.

(Ondorioz, ez da harritzekoa amerikarrak haserre agertzea Afganistango gerraren inguruan Qatar-eko Al-Jazeera telebistak hartu duen garrantziaren aurrean. Orain arte nazioarteko informazioa CNN amerikarrak kontrolatu izan du. Alabaina, gauzak asko aldatu dira. Izan ere, Al-Jazeera telebistak ematen dituen informazioak eta Ben Laden-en adierazpenak kontrolagaitzak eta manipulagaitzak zituztenez, zentsura mediatikoa bultzatu zuten eta Afganistanera sartzeaz bat Al-Jazeeraren emisora suntsitu)

- Munduaren amerikanizazioa toki guztietan dauden enpresa handien bitartez ere gertatzen ari da: Warner, Coca-Cola, McDonald's edo Microsoft bezalako talde ekonomiko indartsuek eredu berberen arabera pentsatu eta ekitera bultzatzen gaituzte, herrien berezitasun eta identitateak desagertuz eta *american way of life* zabalduz. Denborarekin, beraz, elikatzeko, elkarrekin harremanetan sartzeko, informazioa lortzeko, eta orokorrean, bizitzeko modu berberak izango ditugu, hain zuzen mundu osoan jateko janari arin berdina eta mundu guztiarentzako sistema operatibo berdina zabaltzen ari direlako.

Globalizazio kulturala, baina, ez da gauza berria. Egia da ere gertatzen ari dena gertatu denarekin ezin dela parekatu, esanahi kualitatibo berria baitu eta. Baina, harreman, talka eta aldaketa kulturala beti egon baita present historian zeharreko kontaktu ekonomiko eta politikoetan. Ingelesa McDonald's, MTV edo Microsoftek esaten dutena esaten dutela ere, unti ingeles batean iritsi zen, Ingalterrak eramaniko kolonizazioaren arrakastaren ondorioz. Eta gaztelera ere modu berean hedatu zen. Kultura, beraz, ez da inoiz estatikoa

izan eta ez da inoiz existitu tokian tokiko kulturaren, kultura nazionalaren edo kultura etnikoaren estilo puru-garbi bakar bat. Etorkizunak moldatu gaitzake. Egokituko gara.

3.4. Globalizazioaren ondorio linguistikoak

Gauzak horrela, ez dago zalantzarik globalizazioak hizkuntza guztiengan oro har, baina gutxiagotutakoetan areago, eragiten duela. Arestian aipatu den bezala, gure ohitura, bizimodu eta pentsatzeko moduen berregituraketa bultzatzen duen modu berean, hizkuntzak ere errotik astintzen ditu globalizazioak. Beraz, gero eta normalagoa da globalizazioaren eta mundializazioaren ondorio-eraginei buruzko aipamenak edota azalpenak aurkitzea hizkuntzen gora beherei buruzko liburu, artikulua eta ikerketetan.

Gorago esan dudana bezala, globalizazioaren ondorioei buruzko adostasunik ez dago baina. Hobe esanda, ikuspuntu kontrajarri nagusi bi agertzen zaizkigu ekidinezineko prozesu garaikideek gutxiagotutako hizkuntzengan izango dituzten eraginei buruz eztabaidatzen denean.

Bat. Soziolinguista batzuentzat, globalizazioak gutxiagotutako hizkuntzen betiko aje eta arazoak handitu eta areagotu besterik ez ditu egingo, eta, beraz, hizkuntzak desagertzen edota hiltzen joango dira mantsoago batzuk, azkarrago bestek. Munduko biztanleok geure jatorrizko hizkuntzak alboratuko ditugu eta gaztelera, ingelesa, errusiera edo mandarin txinera bezalako hizkuntza boteretsuak mintzatzen amaituko dugu.

Bi. Ikusmira *posibilistagoko* hizkuntzen teorilari batzuentzat, globalizazioarekin gertatuko den komunikaziorako teknologia berrien hedapenak, bereziki *Internet* eta ikus-entzunezko komunikabideen zabalpenak, baina baita ere egungo krisi eta noraeza garaian gertukoaren defentsara egiten ari den itzulerak, hizkuntza eta kultura gutxiagotuak

babesteko baliatu eta profitatu ahal izango dira, eta beraz, globalizazioa bera eta beronenen ondorioak kultura eta gutxiagotutako hizkuntzen mesedetan izango dira.

a) *Globalizazioa arazo eta mehatxu bezala*

Globalizazioaren ondorio negatiboak lehenesten dituztenentzako, globalizazioak —bereziki *amerikanizazioa* bezala kontsideratua—, eta berarekin datozen teknologia eta ikus-entzunezko komunikabide berrien zabalpenak pentsamendu bakarra, homogeneousun kulturala, eta beraz, kultura eta hizkuntza gutxiagotuen mailakako desagertzea ekarriko ditu (Virilio 1997).

Telebista, komunikazioen industria eta ikus-entzunezko teknologiak herrialde aberatsen, eta bereziki ingelesez hitz egiten duten herrialdeen eskuetan daudenez, eredu bakarreko pentsamendu, kultura eta hizkuntzak nagusituko dira (Verdu 1996). Globalizazioak, beraz, joera bateratzaileak eta identitate kolektiboen zein lokalen desagertzeak bultzatuko ditu, hizkuntza eta kultura aniztasuna desagerraraziz. Globalizazioa amerikar inperialismo ekonomiko, politiko eta kulturalak hartu duen forma berria kontsideratzen denez, era guztietako aniztasunaren aurka joango da.

Apurka baino modu geldiezinean bada, kultura, eta bereziki, hizkuntza gutxi batzuk nagusituko dira munduan zehar. Izan ere, gaur egungo hizkuntza bizien kopurua 5.000 eta 6.000 bitartekoa dela uste den arren, horietariko asko datozen urteetan hil egingo direla aurreikusi dute zenbaitzuk (Junyet 1993; Hale 1992; Krauss 1992).

Bizpahiru balaunalditan, beraz, munduan dagoen hizkuntza aniztasuna desagertu egingo da hizkuntza indartsu batzuen mesedetan. Izan ere, Junyet-en hitzetan,

"Azkeneko bostehun urteetan, munduko hizkuntzen kopurua erdira jaitsi da. Décsyren estatistiken arabera, 1970etik 1985era bitartean, hizkuntza kopurua 4.500etik 2.700era jaitsi zen; beraz, 1.800 hizkuntza desagertu ziren 15 urtetan. Gaur egun, gutxi gorabehera 2.000 dira transmititzen ez diren hizkuntzak, eta joerak bere horretan jarraitzen badu, XXI. mendean gizateriaren hizkuntza ondarearen %90 desagertuko da" (Junyet 1999).

Ikuspuntu hau edo antzekoak defendatzen dituztenen arabera, globalizazioarekin munduko hizkuntza aniztasuna kaltetuta geldituko da, gutxiagotutako hizkuntzek orain arte izan dituzten arazoak areagotu egingo direlako; hots, distantzia fisikoak desagertu eta mundua elkarlotuago dagoenez, orain arte hizkuntzen desagertzea bultzatu duten faktore ezkorrek indar handiagoarekin eragingo dutelako.


Unescoren babespean egin den azkenengo *Munduko Hizkuntzei Buruzko Txostenean*, munduko zonalde ezberdinetan hizkuntzen heriotza bultzatzen ari diren arazoak aztertuta eta hizkuntza gutxiagotuek dauzkaten arazoak 7 talde nagusietan banatu dituzte, munduan zehar bakoitzak duen garrantzi erlatiboaren arabera.

Hizkuntza gutxituen heriotza bultzatzen duten arazoak eta bakoitzaren garrantzi erlatiboa munduan

Hizkuntzen arazo nagusienak	Ikertutako hizkuntzak	Garrantzi erlatiboa
Arazo politiko eta militarrek	21	%5,1
Aldaketa soziokulturalei loturiko arazoak	44	%10,9
Arrazoi ekonomikoekin loturiko arazoak	26	%6,3
Arrazoi demografikoek sortutako arazoak	59	%14,3
Instituzioen laguntza falta	88	%21,4
Jarrerei loturiko arazoak	103	%25,1
Egoera linguistikoari loturiko arazoak	69	%16,8
Aztertutako hizkuntzak guztira	525	%100

Iturria: Unescoren Munduko Hizkuntzei Buruzko Txostena

Hain zuzen, gehien ikertu diren hizkuntza arazoetan ageri dira arrisku gehien hizkuntza gutxiagotuentzako: Arrazoi demografikoak (% 14), egoera linguistikoari loturiko arazoak (% 17), erakundeen babes edo laguntza falta (% 21), eta bereziki, jarrerei loturiko arazoak (% 25) baitira arazo behinenak.



Edonola ere, aztertutako guztian euren heriotza bultzatzen duten arazoak munduan bereiztuak aurkezteko diren arren, gehienetan arazook elkarloturik agertzen direla hizkuntzen heriotza

bultzatzerakoan. Esan nahi baita hizkuntzen desagertzea faktore anitzen elkarrekintzaren ondorioa dela, eta ez faktore bakarraren ondorio.

b) Globalizazioa mesede eta aukera bezala

Globalizazioarekiko jarrera ezkorra defendatzen dutenen aurrean, komunikaziorako teknologia berrien hedapena, bereziki *Internet* eta ikus-entzunezko komunikabideen irismena, kultura eta hizkuntza gutxiagotuak babesteko erabili ahal izango dela nabarmentzen dutenen ikuspuntua dugu; globalizazioaren ondorioak, bereziki *Internet*-en iraultza, kultura eta gutxiagotutako hizkuntzen mesedetan erabili ahal izango baitira.

Jarrera pragmatikoago honen iritzian, ingelesaren nagusitasun garaikidea aintzat hartuta ere, teknologia berrien garapenak hizkuntza gutxiagotuak kaltetuko dituen susmoak ez daude frogatuak. Aitzitik, teknologia berriak kultura eta hizkuntza txikien lagunak izan daitezkeela eta euren alde jokatu ahal dutela uste dute. Hiru datutan sostengatzen dira aipatu baieztapen hori oinarritzeko:

- 1) Kultur argitarapena merkeagoa da eta baita errazagoa ere. Sarean sartutako materiala modu errazean mundu osora iristen ahal da.
- 2) Itzulpen sistema automatikoak gero eta hobeak dira, eta jada hasi dira oso ondo funtzionatzen.
- 3) Ahotsa irakurtzen duten programak gero eta hobeagoak dira.

Ondorioz, gutxiagotutako hizkuntza eta kulturei aukera handiak zabaltzen zaizkie teknologia berriekin. Itzulpen automatikoaren laguntzarekin batez ere, hizkuntzen arteko mugak inolako arazorik gabe gainditu ahal izango dira, eta edozeinek ahal izango du nahi

duen mezua nahi duenean kaleratu. Kultura eta hizkuntza aniztasuna eredu menperatzaile berberen mende gelditzeko joera txikiagotu egingo da, beraz.

Komunikabide handiak gutxi batzuen eskuetan gelditzeko arriskua badago ere, zerbait esateko edota erakusteko duenak bere mezua munduratzeko aukera ezin hobeak izango ditu, edozein delarik erabiltzen duen hizkuntza. Areago, muga politikoen gainetik irudi eta ahotsak bidaltzen dituzten komunikabide handiekin lehiatzeko aukerak izango ditu.

Euskal Herriari dagokionez 1982. urtera arte telebista estatuarena, publikoa, zentralizatua eta elebakarra izan bazen, gaur egungo telebista sistema pribatua, deszentralizatua (TB autonomikoak) eta eleanizduna izatean oinarritzen da. Teknologia berrien hedatze eta merkatzearen ondorioz, herri komunikabideak (herri telebista, irrati eta aldizkariak) inoiz baino gehiago ugaritu dira, eta, telebistagintza lokala gainbegiratzen badugu esaterako, Bizkaian 8, Araban 3, Nafarroa Garaian 6, Gipuzkoan 13 eta Iparraldean 2 telebista daudela ohar gaitezke. Hiriburuko telebistak, gehienetan makro enpresa mediatikoek sortutakoak, ikuspegi enpresariala duten bitartean, herri txiki eta eskualde euskalduneko telebistek herri ekimenetik sortutakoak dira gehienbat, eta publiko mugatua izan ohi dute. Euskaraz ari diren herri telebistak 7 diren bitartean —Goiena Telebista (Arrasate), Kaito TB (Azpeitia), Oarso Telebista (Oiartzun), Zarauzko Telebista (Zarautz), Ele Bista (Aldude), Ttipi Ttapa TB (Bera) eta Xaloe Telebista (Elizondo)—, 45 inguru dira herri irrati lokalak, eta 90 inguru herri aldizkariak.

Gainerakoan, zenbait autoreren arabera globalizazioak ez du hizkuntzen aniztasunean eragin bortizik izango kultura eta hizkuntza txikiak globalizazio prozesuei lehen ere ohituta daudelako. Gutxiagotutako hizkuntza asko mendeak daramatzate

gaztelania, ingelesa, eta txinera bezalako hizkuntza handien ondoan bizitzen, eta nolabait esateko, maila txikiagoko globalizazio prozesuetatik babesteko txertoa hartuta dute jada.

Azkenik, esan dezagun Castells-entzat (1996-1997) globalizazioak ez dituela identitate kolektiboak desagertuko. Munduan gertatzen ari den geldiezineko prozesu bateratzailearen ondorio garrantzitsuena zera baita, noraezeko egoera ekartzen digula gizabanakooi, eta horren aurkako erreakzio bezala, hurbilen ditugun gauzenganako itzulia egiten ari garela. Hau da, bizi garen mundua gero eta konplexuagoa da, eta hori dela medio ulertzeko arazoak ditugu. Ondorioz, hurbiltasunerako itzulia egiten ari gara; eta horrek berrindartu egiten du hurbileko taldeen (lagunak, familia, hizkuntza komunitatea, herri nortasuna, erlijioa...) eta tokian tokiko identitateen beharra.

Kulturak estandarizatu eta homogeneousatzeko joera orokorrek *tribalizazio* berriak eta hurbilean dugunarekiko atxikimendu handiagoak ekarriko dituzte (Maffesoli, 1997). Eta horrekin batera, baita herri komunikabide eta hizkuntza gutxiagotuekiko atxikimendu handiagoa ere.

Edozein kasutan, oso ohizkoa bilakatu da esatea identitatezko adierazpen nazional edo etno-arrazialak globalizazioaren olatu homogeneousatzailearen defentsa edo erreakzio bezala sortu direla. Bada, ikuskera hau, ikuspuntu historiko-soziologiko serio batetik bederen erratua dago, zuzenean mundu garaikidearen interpretazio "tribalista" batera baikaramatza: "Jihad vs McMundua"-ren interpretazio kontrajarri eta dialektikora, hain zuzen (Barber, 1992). Eta, beraz, beste autore batzuen moduan, globalizazioa lokalizazioaren kontrakotzat bezala definitzera darama Barber ere.

Dena den, Jihad delakoa guztiz kritikagarria bada ere, ezin da ukatu modu integrista batean identitate islamiarra babesteko nahia dagoela oinarri-oinarrian. Mendebaldeko pentsamolde eta portaerak alboratu eta Koranaren interpretazio integristaren bitartez Mundu

Islamiarrera hurbiltze prozesua da. Beraz, eta modu integristan bada ere, azken finean euren erlijiora bueltatzeko eta Islama babesteko nahi bat dago. Mundu guztia McDonald's handi bat bihurtu nahi duten amerikarren aurkako gurutzada da.

Hizkuntza gutxiagotuentzako ikuspegi posibilista ageri dutenekin amaitzeko, beraz, globalizazioa nahitaez gertatuko den prozesua bada ere, ez dela herrien eta hizkuntzen aurka joango usten dute. Gutxitutako kultura eta hizkuntzak, aitzitik, gordetzen eta garatzen lagunduko duten joerak bultzatuko dituela irizten diote. Esanak esan, beraz, globalizazioak ez ditu hizkuntza txikiak egun batetik bestera desagertuko.

IV. ORDENA LINGUISTIKO BERRIA

4. Hizkuntza boteretsuak, eskualde hizkuntzak eta tokian tokiko hizkuntzak

Gaur egunean bizi dugun globalizazioaren fenomenoak, beraz, mundu mailako aldaketa linguistiko garrantzitsuak eragin ditu. Ingelesa bilakatu da nazioarteko hizkuntza nagusia botere ekonomikoaren eta politikoaren hizkuntza izatera iritsi den momentutik. Eta gizarte klase altu eta ertainen nola gazteriaren hizkuntza bilakatzen ari da, modu biziz.

Ingelesa ama hizkuntza duten pertsonak soilik 390 milioi badira ere, 1.900 milioi hiztunek inguru —munduko biztanleriaren heren batek inguru— erabiltzen dute gaur egun ingelesa, era batera edo bestera. Gizateriaren historian inoiz horrenbeste jendek ez du hitz egin (zer esanik ez *erdizka hitz egin*) hizkuntza bat horren modu zabalean.

Ingelesa munduko artikulua eta ikerketa akademikoen, egunkari eta aldizkari gehienek hizkuntza izatera iritsi da. Arrakasta amerikarreko irrati, telebista eta filmeek ingelesez mintzo den kultura hedatzen dute txoko eta mundu guztira, eta, *Internet*-en aurki

dezakegun informazioaren %80 baino gehiago ere, ingelesez ageri zaigu; nahiz eta erabiltzaileen %44k beste hizkuntza bat erabili egunerokoan. Ez da harritzekoa, hortaz, ingelesezko eskaera eta eskaintza globala areagotzen joatea.

Horregatik, globalizazioaren eragin ekidinezina begi bistakoa den bezala, ingelesaren hedapen zabal eta momentuz geldiezinak ukaezina da, esaten dena esaten dela ere; "hizkuntza hiltzailea" kontsideratuko dute batzuek, bere zabalpena globalizazio onbera lez edo inperialismo linguistiko bezala ikusiko dute besteek.


Eta, izan ere, horrelako irismenari halako botereak jarraitzen dio. Logika sinplez eta zentzu komun oso apalez diot. Zeren, inoiz ez bezalako hizkuntza baten helmenak sekulan ez bezalako indarra eta eragiteko ahalmena ematen baitio ingelesari, gaurko egunean. Esan nahi baita kuantitatiboki gehiago direla txinera hitz egiten dutenak —ingelesak baino bi aldiz gehiago—, baino globalizazio tekno-ekonomikoa eta teknologia eta ikus-entzunezko komunikabide berrien aukerak hobekiago erabiltzen jakin dituztela anglosaxoiek, edo hobe iparamerikarrek.

Edonola ere, hizkuntza bat ideologia, pribilegio eta interes nazionalen sinonimo ez den arren, ingelesaren erabilerak eta paperak, edozertarako balio duen hizkuntza bezala —hasi goi mailako diplomaziatik eta bukatu aire-trafikoaren kontrolarekin—, hainbat abantaila eskaintzen dizkio hiztunari. Ingelesa hitz egiten duten herrialdeek munduko barne produktu gordinaren %40a osatzen dute. Munduko gero eta enpresa gehiagok baldintza eta irizpide bezala ingeleseko ezagutzak izatea lehenesten ari dira, lana eskuratu edo karguz igo nahi dutenentzako behintzat. Mundu mailako politikari profesionalen arrakasta ere, eskuarki ingelesarekin duten erraztasunarekin lotua dagoela dirudi. Gerhard Schroeder kantziller alemaniarra eta frantziako lehendakari Jacques Chirac bildu zirenean, ez zuten alemaniera ezta frantsesa erabili, ingelesa baizik; eta Jose Maria Aznar espainiako

presidentea ere ingelesez mintzatzen da Tony Blair britainiar lehen ministroarekin. Erresuma Batua Moneta Batasun Europearraren partaide ez bada ere, bankua Frankfurten kokatua izan arren, eta bankuko langileen %10 ez besterik britainiarra izanik ere, ingelesa da Banku Zentral Europearraren hizkuntza. Europar Batasunean ingelesak hartu duen nagusigoa horren da handia, batasunaren buruzagiek pizgarriak ematen dizkietela langileei beste hizkuntza ofizial bat ikas dezaten.

Dena den, lingüista profesionalek zalantza ageri dute ingelesaren etorkizun oraindik globalizatuago bat auresaterakoan. Kualitatiboki nahiz kuantitatiboki garrantzitsuak diren eta ingelesari lehia egin diezaioketen bestelako hizkuntza boteretsuak egon badaudelako munduan zehar. Bestelako kontua da globalizazioaren ondorio eta baliabideak behar bezala eta estrategikoki erabiltzen asmatuko dutenentz horiek guztiek.

Hona, azpiko diagraman, hiztun kopuru gehien sortzen dituzten munduko hamar hizkuntzik garrantzitsuenak:



Historikoki, hizkuntzak lagundu dieten botere ekonomiko, kultural eta erlijiozkoekin batera igo edo hedatu eta jaitsi edo murriztu dira. Baina historiaren mugimendu pendularrez haratago hizkuntza ingelesak azkenerako eragina galduko duela sinisteko beste zio batzuk badaude. Esaterako, ingelesak zorioneko gutxiengo txiki eta ezohizko bat besarkatzen du. Gainera, globalizazioarekin erlazionatzen diren elkarreragin moetak erregionalizazioa eta eskualdeko hizkuntzen zabalpena sustatu dute. Arabiera, txinera, hindiera, gaztelera, eta beste horrenbat hizkuntza erregionalek hedapen adierazgarri bat erakusten dute jada, baina horien guztien hazkunde esanguratsuena ikusteke dago oraindik.

Azkenik, ingelesaren eta eskualde hizkuntzen hedapenak eta eurek zuzentzen dituzten indarrek, lokalizazio-poltsak sortzen eta tokian tokiko hizkuntzak berrezartzen dituzten komunitate txikietan presio efektua sortarazi dute.

Bat. Gaur egungo ingelesaren hedapen jarrai eta etenik gabeko hau globalizazioaren emaitza eta globalizaziora ekarpena da, aldi berean. Faktore batzuk argiak eta jakinak ditugu: nazioarteko merkataritzaren eta enpresa multinazionalen hazkundea; komunikabide iparramerikarren irismenaren norainokoa; Internet-ek sortutako sare elektroniko erraldoia, eta abesti, arropa, janari, kirol eta aisialdi iparramerikarren talka linguistikoa. Badira, jakina, ikusterrazak ez diren beste zenbait faktore, ez horregatik garrantzi gutxiagokoak direnak: atzerrian gero eta jende gehiagok ikasten du ingelesa, eta gero eta maizago doaz ikasleak ingelesa mintzatzen den herrialdeetara ikasketak egitera. Duela hamar urteko datuen arabera, 1992an ikasketak atzerrian egin zituzten mundu guztiko milioi bat baino

gehiago ikasleen erdia inguru, ama hizkuntzatzat ingelesa duten sei lurraldeetako instituzioetan eman zuten izena: Australia, Kanada, Irlanda, Zelanda Berria, Erresuma Batua edo Ameriketako Estatu Batuak. Gaur egunean pentsatzekoa da kopuru hori handitu egingo zela.

Bi. Globalizazioak eragin duen elkarreragin sozialen eta gizarte harremanen hazkundera —merkataritza, bidaiak, erlijioen ugaritzeak eta ezkontza interetnikoek— tokian tokiko biztanleriaren zabalera iritsi da. Interakzio hauek eskualde hizkuntzen zabaltzea bultzatu dute.

Ikus dezagun biztanleria mundialaren %13a bizi den eta munduko sei mila hizkuntza modernoetatik bi mila inguru hitz egiten diren Afrikaren kasua. Afrikak 1.400 hizkuntza inguru ditu, lau taldetan banatuta: Afro-Asiarrak iparraldean, Niger-Kordofaniarra erdialdean eta hegoaldean, Nilo-Sahararrak ekialdean eta Khoisan hego mendebaldean. Unescok onartzen du ez dakiela hizkuntza askoren egoera, urtetan ikerketak egin ez direlako gerra giroa zela eta. Hala ere, nabaria da Afrikako hizkuntza handiak (eskualdekoak) direla txikiagoak (tokian tokikoak) arriskuan jartzen dituztenak, nahiz eta herrialde batzuetan eliteek frantsesa edo ingelesa inposatu nahi dituzten. Nigeria, Kamerun, Sudan eta Etiopiak dute aniztasun gehien.

Bistan da, beraz, kontinente afrikarrean ingelesa ez dela bitarteko bakarra, ezta egokiena ere, oztopo-linguistikoen lasterketan korrika egiteko. Afrika ekialde guztian, suajilieraz egingo dute berba elkar topatzen duten bi ezezagunek. Sortaldeko afrikar ertainak ingurumaria ezberdinetan du harremana suajiliarekin: merkatuan, haur hezkuntzan,

gobernuak argitaratutako esku-orrietan edo irrati eta telebistako programazioan. Filme indiar berriak suajilierara itzultzen dira sarri, eta Kenia, Tanzania eta Ugandako hiri eta herrixketan proiektatzen dituzte. Afrika mendebaldean, aldiz, hogeita bost milioi pertsonen hitz egiten dute hausera ama hizkuntza bezala, eta baliteke hazkundera den eskualdeko merkataritzari esker bikoitzak mintzatzea bigarren edo hirugarren hizkuntza bezala. Hausera mintzatzen diren hiztun gehienak musulmanak dira, eta beraz, Ipar Afrikako eskualde hizkuntza nagusia den arabiera irakasten duten eskola alkoranikoetara joaten dira.

Modu honetara, afrikar ugari hirueledunak dira arrazoi funtzionalengatik: tokian tokiko ama hizkuntzak erabiltzen dituzte "euren artean" hitz egiterakoan, hausera merkataritzarako, eta arabiera errezu eta koranaren ikasketarako. Hauseraren hiztunek baina, batasun hizkuntza bezala hauserak etorkizun handia duela uste dute. Bere lehiakide nagusia ez da ingelesa izango, wolofera bezalako (Senegaleko eta inguruetako merkatuetan zabaltzen ari dena) edo *pidgin* ingelesa bezalako beste eskualde hizkuntza batzuk baizik.

Eskualdeko komunikazioaren areagotzeak, merkatuetako elkarreragin informalek, eta migrazioek ekarri dute eskualde hizkuntzak Afrikan hedatzen diren bezala zabal daitezen. Mandarin txinera Txinatik eta hegoaldeko herrialde batzuetatik zabaltzen da. Gaztelera Ameriketatik zabaltzen da. Ingelera *pidgin*aren aldaera ezberdinak sortu dira modu informalez Australia, Karibe, Papua Guinea Berria eta Afrika mendebaldean. Frantsesaren erabilera, eragin kolonialaren hastapenetan baino mantsoago bada ere, oraindik areagotzen doa antzinako kolonia frantziarretan. Indiaera ikasle berriengana heltzen ari da aniztasun etniko eta linguistikoko Indian. Eta arabiera, Ipar Afrikan eta hegoaldeko asiarean zabaltzen da, islamaren hizkuntza bezala eta eskualdeko merkataritzarako garrantzi handiko hizkuntza moduan.

Eskualde hizkuntza batzuk gobernu antolakunde eta batzordeen esfortzuei eskerrak zabaltzen dira. Frantziak ehunka milioi euro gastatzen ditu urtean frantsesezko hitzaldi, eskola eta prentsak diruz laguntzen. Ekialde Hurbileko antolakunde musulmanek ingelesezko esku-orri eta dokumentuen bitartez islamaren ezagutza hedatzen dute munduan zehar, nahiz eta gero euren arteko harreman sareetan arabieraz mintzatu. Gobernu alemaniarrek hirurogeita hemezortzi Goethe Institutu finantzatzen ditu, Beirutetik Yakartara zabalduak daudenak. Singapurrek, lau hizkuntza ofizialeko —txinera, Malaysiera, tamilera eta ingelesa— hiri-estatu bakarra denak (bere mugen baitan beste hiririk ez du), hogeigarren urtea bete du aurtengoan "Mintzatu mandarin txinera" kanpaina nazionalarekin. Kanpaina honen zioak, txineraren dialektoak erabiltzen zituztenek hizkuntza amankomuna mintza zezaten eta eskualde hizkuntza bilakatzeko erraztasunak eman diezaioten izan ziren.

Baliteke eskualde hizkuntzen garrantzia etorkizun hurbilean areagotzea. Azken finean, guztiek dituzte eskualdeko *lingua franca*-k beste biztanleria zabal eta handiagoetara iristeko aukerarekin aurkitzen direnerako. Garapen bidean dauden zenbait zonaldeetan gainera, eskualde hizkuntzek erraztu egiten dute zabalpen komertzial, industrial eta laborantzazkoa. Alfabetizazioa, helduen formakuntza eta lehen mailako heziketa ere sustatzen dituzte osagai eleanitzeko guneetan. Tokian tokiko herri-hizkuntzak maneiatzeko gehiegi izatera iristen direnean, eskualde hizkuntzak igarotzen dira lehen lerrora.

Hiru. Globalizazioaren eta erregionalizazioaren presio eta sariez gain, tokian tokiko identitateek oraindik errotuagoak darraite. Globalizazioaren emaitza mundu txikiago bat

sortzea bada ere, bere irismenak indibiduen arteko harreman lokal estuagoen beharra sustatzen duela dirudi.

Komunitate gehientsuenetan, euskara bezalako tokian tokiko hizkuntzek "benetakotasun" bereizgarri bezala funtzio sinboliko oso markatu bat dute. Komunitateak partekatutako esperientzia historikoaren batuketa bezala, "egiazkotasunak" kulturalki idealizatutako iraganetik orainaldira daroan marra hautemangarria marrazten du. "Zinezkotasunarengatik" dagoen kezkak eramaten ditu hebrear laiko gehienak euren artean hebreera bultzatzera, nahiz eta ingelesa eta arabiera ere jakin badakizkiten arren. Obsesio berak eramaten ditu yiddihsera bultzatzera hasidiar juduak edo diasporakoak, hebreera eta ingelesa ikasten darraiten artean. Kasu hauetako bakoitzean "benetakotasuna" sinismen eta interpretazio kulturalen erdigunea da; ez diote soilik globalizazioari aurre egiten, indartu ere egiten baitira balio historiko hauenganako globalizazioak adierazten duen "mehatxuaren" aurrean.

Akademikoek, konpentsazio sistema espezifikoek erantzun bezala identitate kulturalak denborarekin aldatuz doazela argudiatu dezakete, baina tokian tokiko biztanleak azalpen hauenganako erresistentzia garbia erakusten dute, globalizazioaren "mehatxu" hautemangarriaren aurrean "benetakotasuna" eta ama hizkuntza lokalen defentsa sutsuan azaltzen baitira.

Bestalde, gaur arte ez da historian zehar horrenbeste hizkuntza estandarizatu esistitu: 1200 inguru. Hizkuntza txiki asko, milioi bat hiztun baino gutxiagokoak zenbaitzuk, Estatuak diruz lagundua izateari eskerrak onuradun atera dira. Maila informalago batean, sorterriko hizkuntza amerikarrak belaunaldi gazteenei ondorengoetartzeko saiakeran, Alaskako komunitateek eta AEBetako ipar-ekialdekoek

eztabaida taldeak sortu dituzte *Internet*-en. Eta Mexikoko zapatistek hizkuntza mayen berpizkundera defendatzen dute, ekonomia lokalaren defentsan agertzeaz beste.

Sustrai lokalen garrantzia azpimarratzeaz gain, tokian tokiko hizkuntzen defendatzaileek beren erabilera jarraia arrazoi pragmatikoengatik defendatzen dute. Hizkuntza lokalek hezkuntza etekin altuagoak sustatzen dituzte, tokian tokiko gobernuetan parte hartzea areagotzen dute, hiritar informatuagoak dakartza, eta kultura, historia eta sinismen propioen ezagutza handiago bat bultzatzen dute. Horren adibide frogatua dugu Rough Rock-eko (Arizona) haur *navajoena*, zeintzuk navajoz eskolaratu arren ingeles hutsean matrikulatu zirenak baino ingelesezko irakurtze gaitasun handiagoa zuten.

Gobernu eta erakunde humanitarioek ere erabil ditzakete tokian tokiko hizkuntzak nekazal eta industri tekniken eta osasun asistentzien gaineko informazioa zabaltzeko. Mendebaldeko Afrikaren garapenerako lanean diharduten langileek esaterako, asmatu dute heziketa gutxiko nekazariei euren uztak modu egokiz kudeatzen erakusteko modurik egokiena tokian tokiko hizkuntza erabiltzea dela.

Euskaratik hasita zuluraino, beraz, munduko hizkuntza lokalen dependentzi praktikoa gaur egunean hizkuntza horiek beroriek betetzen duten identitate funtzioa bezain handia da. Alabaina, erregionalizazioak nola globalizazioak hizkuntza bat baino gehiago jakin dezaten eskatzen die tokian tokiko hizkuntzen hiltunei eta irakurleei.

4.1. Hizkuntza komunitatea, hizkuntza gatazka eta hizkuntzen krisia

Hizkuntza komunitate nagusienek globalizazioaren aurrean euren hizkuntzak mantentzeko deliberoa hartu duten modu berean, ez gaitu harritu behar komunitate txikiagoek ere helburu berbera lortu nahi izatea; hots, alemanek globalizazioa jarraitzen badute, baino

euren artean alemanez mintzatzen segitu nahi badute, zergatik ez lukete gauza bera erdietsi nahiko Mexikoko tzeltal, tzotzil eta tojolabalek?

Eleaniztasunak aukera hori eskaintzen du, teorian. Mintzaira orok, gizarte eleanitz batean, funtzio bereizgarriak baititu. Gertuko senideekin eta lagunekin erabiltzen den ohizko hizkuntza, lankideekin eta bizilagunekin mintzatzen dena, edo nagusiarekin eta gobernuarekin erabiltzen dena ez da nahitaez eta derrigorrean berbera. Material tekniko edo ekonomiko espezializatuaren irakurketak, adibidez, propaganda politikoaren irakurketak eskatzen duenak baino beste hizkuntza ezberdin baten ezagutza galdatzen du. Gizarte funtzio berberarengatik bi hizkuntzek edo gehiagok lehiatzen ez duten bitartean, lanaren banaketa linguistikoa lagunkoi eta iraunkorra izan daiteke, beraz. Indian ingeles hiztun gutik abandonatu dute tokian tokiko ama hizkuntza edota eskualdeko lengoaia. Modu bertsuan, Administrazio ia independentea duen Karibeko lurralde estatubatuarra den Puerto Ricon, hezkuntza edo lan ordainak eskuratzeko ikasi dutenentzat ere, maizenean "inoizkako hizkera" da ingelesea.

Gatazkak, igurtziak, bateko irabazleak eta besteko galtzaileak izango direla zalantzarik ez da. Hizkuntza gatazka ageri baita bi hizkuntzek botere funtzio beraren erabilera bakar eta baztertzailagatik lehiatzen dutenean. Kasurik gehienetan tirabira hau gertatzen da tokian tokiko edo eskualdeko hizkuntza batek beste hizkuntza lokal batenak diren funtzioak kentzen —indarrez eta bortxaz, barne— saiatzen denean. Aro sobietarrean, Moskuk²⁴ tokian tokiko hizkuntzen aurkako sistema oldarkor bat ipini zuen martxan, Baltiar Herrietan eta Erdiguneko Asian errusiera ezarriaz hezkuntzaren eta gobernuaren hizkuntza bakar gisa. 90eko hamarkadan, ordea, estatu hauetako batzuek eskoletatik, go-

²⁴ Egungo Errusian lau hizkuntza nagusi errekonozitzen diren arren —errusiera, ukrainiera, tatar eta txuvashera—, errepublika eta eskualde autonomoetan tokian tokiko hainbat hizkuntza ere ofizialak dira.

bernuetatik, ekimen kulturaletatik eta aisialditik errusiera alboratzen joan ziren hizkuntza nazionalen mesedetan. Estonia, Letonia eta Lituaniak, oraintsu arte etnia errusiarrak babesgabe utziak bazituzten ere, lege oso zorrotzak onetsi dituzte hizkuntza nazionalen eremu eskusiboan aurkitzen direlarik hezkuntza, zientzia, teknika eta kultura.

Siberiako hizkuntza gehienak, dena den, arriskuan daude errusieraren presioaren pean. Ongien daudenak jakut eta dolgan hizkuntza turkiarrak dira. Mandarin txinerak, berriz, arriskuan edo desagertzeko bidean jarri ditu Mantxuria, Mongolia eta Xinjiango hainbat mintzaira, besteak beste, zhuang, uigur, yi, miao, tibetera, mongoliera, bouyei, koreera edo dong. Himalaia aldean hogeiren bat hizkuntza tibetar-birmaniar ere arriskuan daude (karen, kachin, chin, shan...). Indian, eleaniztasuna oso zabaldua dagoenez²⁵, tibuetako hizkuntza batzuk soilik daude galzorian. Afganistango zenbait hizkuntza persiar enbor bereko tadjikeraren presioa jasaten ari dira. Japonian, Hokaido uharteko ainu hizkuntza berpizteko saioak egiten ari dira, baina Ainu etniak dituen 17.000 lagunetatik bakan batzuk besterik ez dira beren hizkuntzan mintzatzen.

Munduko herrialdeen artean, Ozeaniako Australiak ditu hizkuntza gehien desagerturik edo kinka zailean. Dozenaka hizkuntza aborigen daude desagertzear, eta guztien artetik, mila hiztun baino gehiago dituzten walmadjari, warlpiri, pitjantjara, aranda, gubabunyu eta gunwingyu hizkuntzak izango dira ofiziala den ingelesaren aurrean bizi-itaropena pizturik mantentzeko bakanetakoak. Hori horrela da, komunitate bakoitzak bere mintzaira zuelako eta 70eko hamarkadara arte asimilazio bortitza jasan behar izan zutelako. Australiako Ipar Mendebaldeko probintzian eleaniztasuna ezarri duten arren, be-

²⁵ Ingelesa Indiako laguntza-hizkuntza ofiziala (*lingua franca*) eta india hizkuntza nazionala (*lingua franca* hau ere) diren arren, hizkuntza konstituzionalak dira ere telugu, bengalera, marathi, tamil, urdu, gujaratera, kannada, malayalam, oriya, assamera, kaxmirera, punjabera, konkanera, manipurera, nepalera, sindhi, sanskrito (kultur hizkuntza hila).

randuegi da dagoeneko. Neurtzea zaila den arren, 400 hizkuntzetatik 280 hilik daude jada, ehunen bat hilzorian eta 22 egoera hobean. Papua-Ginea Berriak, aldiz, ingelesa, tok pisin (kreolera) eta motu —ofizialak— hizkuntzez gain, 820 mintzaira papuar eta melanesiar ditu; orain arte ongi eutsi badiote ere —hiztun gutxirekin—, tribuen arteko harreman sakonagoek askoren desagertzea ekarriko du. Pazifikoko kolonia frantziarra den, eta beraz, frantsesa hizkuntza ofiziala duen Kaledonia Berrian (Kanaky), kanakak 20 bat etnietan zatituta daude eta horietatik 13 hizkuntza daude galtzear. Mila hiztunetik gora dituzten hizkuntza gutxiagotuetatik, beraz, defu, nengone, paici, wailu, xaracuu, cemuhi, iaai, yaage, numee, yalayu eta dubea mintzairak dira, hurrenez hurren, egoera itxaropentsuenean aurkitzen direnak.

Amerikar kontinentean, hizkuntza amerindiar ugari dago galtzeko zorian. Biztanleriaren %59,3k ingelesa eta %23,2k frantsesa —ofizialak, biak— ezagutzen dituzten Kanadan, iparraldeko, Alaskako eta Groenlandiako biztanleriaren %2a ordezkatzeko duten inuiten eta indiarren lengoia gehienak (cree, ojibwa...) galduta edo galtzear daude. Hudson badiako talde batzuek moldez eutsi diote, ordea. Ameriketako Estatu Batuetan, aldiz, hizkuntza ofizialik ez dagoen arren, ingelesa da *de facto* berbera ofiziala. Dozenaka hizkuntza indiar, UNESCOk otsailean kaleratutako *Desagertzeko Arriskuan dauden Munduko Hizkuntzen Atlasaren* arabera 150 hizkuntza indiar, galzorian daude, gazteek ez dituztelako ezagutzen. Herri hauetako hizkuntzek bakarrik dituzte 20.000 hiztunetik gora: navajo (100.000), ojibwa (30.000), inuit (eskimala, 25.000) eta dakota (20.000). Gaztelaniaz ere mintzatzen dira gutxiengo hispanoko asko. Mexikon, espainiako kolonizazioak dozenaka hizkuntzaren desagertzea ekarri zuen, baina egoera zailean aurkitzen dira orain tojolabal, tzotzil, tzeltal, oto-mi, mixteca, zapoteca, yucateca edo nahuatl bezalako hizkuntzak. Puebla-Panama Plana bezalako egitasmoek merkataritzaren

globalizazioaren hizkuntza den ingelesaren sarrera azkartu dezake, zazpi milioi lagun inguruko hizkuntza indigenek eskualde hizkuntzaren (gaztelera) presioaz gain, ingelesaren lehia nabarmendu dezaketelarik. Hego Amerikan, batez ere Amazonas oihaneko indiarren mintzairak daude arriskuan. Kitxuak eta aimarak ofizialtasunaren babesak dute Perun eta Ekuadorren, eta guaranierak ere Paraguain.

Eskualdeko eta tokian tokiko erreximenek hizkuntza motibo politikoengatik erabiltzeko aukera gehiago izanagatik, hizkuntza globalek ere (ingelesak barne, globalizazioaren mintzoa) gatazkak sustatu ditzakete. Ingelesaren hedapenagatik frantsesak duen kezka ondo dokumentatua dago, bai baitu oinarriak. Pariseko gobernuak debekatu egiten du ingelesa iragarkietan eta arautu egiten du estatuan estreinatu daitezkeen ingeleseko pelikulen zenbatekoa. Ministroen kabineteak pertsona bakar bat, kultura eta komunikazioaren ministroa hain zuzen, arduratzen da hizkuntza nazionalaren ongizatea zaintzen. Frantziar Akademiak, frantziar hizkuntza eta estiloaren arbitro nazionala denak, arrunkeria angloamerikarrentzat neologismo ofizialak onartzen eta hobesten ditu frantsesa "ustelkeriatik" babesteko. Gerta ala gerta, frantziar ikastetxeek gero eta arinago sarrarazten dute ingelesa.

Globalizazioaren hizkuntzak hitz egin eta ezagutzen dituztenak sarritan azaltzen dute tokian tokiko hizkuntza "etorri berriek" munduaren bakerako eta oparotasunerako arrisku bat adierazten dutela. Historian zehar, hizkuntza boteretsuek ukatu egin dute hizkuntza txikiagoekin boterea partekatzea, eta, arazoak sortzeaz —bakea oztopatu, biolentzia etnikoa bultzatu edo separatismoa— leporatu diete. XIX. mendean Irlandako gaelikoaren purgak, ordea, ez zituen eiretar askok Ingalaterrarekin zituzten loturetzak komentzitu. Dena den, gaelera edo irlandesa lehen hizkuntza ofiziala izanik ere (ingelese bigarren hizkuntza ofiziala baina *de facto* nagusia baita), 787.000 lagunek dakite, eta

120.000 mintzatzaileen etxeko hizkuntza da, batez ere eskualde gaelikoan, Gaeltacht delakoan. Hizkuntza komunitate txikiek Anaia Handia linguistiko hauei inperialistak, linguizidak eta genozidak izatea leporatzea ez da zurtutzekoa bada.

Globalizazioa, erregionalizazioa eta lokalizazioa aldi berean gertatzen dira, beraz. Hiru prozesuak dira garaikideak eta batera jazotzen dira, bai, baina intentsitate eta bizitasun ezberdinak dituzte munduaren zati eta une bakoitzean. Aldaketa sozial, kultural eta politikoetan ere nahasiak egon daitezke. Maiz, iparraldeko hindiekin harremandu nahi direnean ingelesa da Indiako tamilen hautu linguistikoa. Ironikoki, tamil askoek —Delhiko autoritate zentralarekin harreman hotzak mantentzen dituzte— ez dute ingelesa hindia bezain koloniala kontsideratzen. Indonesian, ordea, AEBek Yakartako erreximen oligarkikoa urteetan zehar sustengatu zutenez, ingelesa militarrekin, eskubide zibilen ukazioarekin eta langileen zapalkuntzarekin erlazionatzen da. Klase sozial altuen artean ingelesa zabaltzen den arren, gobernuak Indonesiako hizkuntza ofiziala den indonesieraren (malaieraren era estandarra, ofiziala) erabileran egiten du indar, tokian tokiko hizkuntzei eta dialektoei —javera, sundera, madurera, minangkabau, batak, aceh, baliera...—inolako errekonozimendu sinbolikorik eman gabe. Javako buruzagi tradizionalak eta biztanleria xeheak, dena den, javerazko tradizio literario klasikoaren oinordeko direnak, ingelesak eta indonesierak eskaintzen dituzten kutunkeriei buru egiten diete.

Hizkuntzen zabalpena gorrotatzera iristen dira horrenbat hizkuntza komunitate askotan, batzuentzat kaltegarri den bitartean besteentzat onuragarri suertatzen delakotz.

Esan dugu salerosketa, gobernu, aisialdi eta hezkuntzaren esparruan globalizatu egiten dela ingelesa. Baina ingelesa asko hedatu bada ere, ezagutzen dutenek bigarren edota hirugarren mintzaira lez erabiltzen dute. Gero eta ingeles ikasle gehiagok berezko edo sorterriko hiztunekin erlazio gutxi edo inolako harremanik eduki ez duten irakasleengatik jasotzen dute ezagutza. Eta ahozko ingelesak edota hitz egiten denak, eskualde idiosinkrasia markatua izan ohi du.

Datozen urteetan hindiaren, urduaren, mandarin txineraren, gazteleraren eta arabieraren bariedade ezberdinen goraldia espero da —hizkuntza hauek hitz egiten dituzten komunitateen leherketa demografikoei eta ekidinezinezko migrazio fluxuei eskerrak—. Mundu mailako hizkuntzarik gutxiagotuenak are gutxiagotuagoak gera litezke gertuko eskualde bizilagunek batetik eta ingelesak bestetik eragindako igurtzimendu eta ukituekin. Tokian tokiko hizkuntzik garbi eta xahuenak (milioi bat baino gutxiagoko hiztunak dituztenak) galzorian aurkituko dira mende honetan. Eta emaitza bezala, hizkuntza komunitate gutxiagotu askoek ez dira soilik euren hizkuntzak normalizatzen ahaleginduko, "bizilagun" diren hizkuntza boteretsuenen inbasioei mugak jartzen saiatuko baitira.

Ingurune demokratikoetan ere, "demokrazia etnolinguistikoa" gutxi jorratutako gai bat da. Gobernu iparramerikarra indibiduen eskubideak bermatzeko diseinatua zegoen. Ez da kasualitatea aitaponteei hizkuntza ofizialik batere ezarri nahi ez izatea. Dena dela, AEBetako toki askoetan gaztelerari dagoen aurkakotasunak eta hezkuntza elebidunak badirudi ez duela pertsona orok zein hizkuntza den ezinbestekoa aukeratzeko eskubiderik duenik.

Zer gertatuko da ingelesarekin? Baliteke gizarte klase altuengana hurbiltzea gero eta gehiago, eta gizarte baldintza xumeagoetan daudenak, aldiz, onura apalagoak lortzearren eskualde hizkuntzak hautatzea. Epe luzera, ingelesaren etorkizunarentzat mesedegarria

zatekeen euren bultzatzaileek tokian tokiko eta eskualdeko gailentasun gutxiago eta funtzio eksklusibo gutxiago bilatzea, bai Nazio Batuetan eta baita munduan, oro har. Posibleagoa baita jendea larderiari beldur izatea eta herrikoia izatea ez lortzea. XXI. mendean jaioterritik ingeles hiztunak ez diren eleketarien gehiengoak sorterriko ingeles mintzatzaileek aurreikusten dutena baino gutxiago maitatuko dute hizkuntza. Alemaniarrei beren zientzilariek masiboki ingelesez argitara dezaten arduratzen die. Frantziak komunikabideetan, diplomazian, zientzian eta teknologian ingelesari erresistentzia erakusten jarraitzen du. Baina txekiarrei Milan Kundera bezalako idazle nazionalek txekiera alboratu (bere nobela ezagunena, *Nesnesitelná lehkost byti* txekieraz idatzi zuen) eta frantzesez idatzi dezaten —naziotasun frantsesa eskuratu eta guzti— kezkatzen die (*L`Identité* edo *L`Ignorancen* egin bezala).

Ingelesaren nagusitasunaren gaitzondoak nola gizarte klase ezberdinetatik zabaltzeko joerak, epe luzera, bere etorkizuneko globalizazioarentzat galga bat suposa dezake.

Ez dago motibo nahikorik —gaur egunean teknologian, goi hezkuntzan edo gizarte mugikortasunean bezalaxe— ingelesa beti beharrezkoa izango dela esateko. Gutxiago eskualde hizkuntzen hazkunde boladak aurreikusi daitezkenean. Hori gertatzen denean, gertatzekotan, zibilizazioa ez da itsas azpian itoko. Frantsesaren gainbeherak ez ditu konponezinik gabe kaltetu bere urrezko eraginpetik artea, musika edota diplomazia. Alemaneraren antzerako beheraldiak ere ez ditu zientzia zehatzak makurtu. Greziar klasikoa, aramera eta latina —bere garaian botere politikoa, sofistikazioa eta merkataritza adierazten zituzten hizkuntza mundialak— aztarna soilak baino ez dira mundu modernoan.

Ingelesaren botereak, bereziki botere indartsuagoko lehiakide bat sortzen bada, ez dio askorik iraungo angloamerikarren eragin eremuko gailentasun militar, komertzial eta

teknikoari. Ingelesaren erabilera munduan gutxitzeak ordea ez du esan nahi hedapen horretatik eratortzen diren balioak ere berdin egingo dutenik. Azken finean, demokrazia, nazioarteko merkataritza eta garapen ekonomikoa edozein hizkuntzatan loratu baitaitezke.

4.2. Euskal kulturaren eta euskararen alde irmo eta makalak

Globalizazioak, erregionalizazioak, eta eurekin batera hedatu diren ikus-entzunezko komunikabide eta teknologia berriek kultura eta hizkuntza gutxituetan eragin izugarria izango duten bezala, euskal kultura eta euskararengan ere ondorioak izango ditu, jakina denez.

Kontua ordea zera da, eragin horien alde baikorrak profitatzeko eta ezkorrak saihesteko dauden aukerak ezagutzea ezinbestekoa dela, martxan jarri beharreko estrategiak pentsatu eta hartu beharreko erabakiak hartzeko. Horretarako, euskararen eta euskal kulturaren inguruan garatu diren ikus-entzunezko komunikabide eta teknologia berrien alde sendo eta ahulak zeintzuk diren ezagutu behar ditugu.

Euskarak baditu etorkizunean ere irauteko alde irmo ugari:

- Euskal Herrian asko ugaritu da euskaraz aritzen diren herri irati (45 bat inguru) eta telebistak (7 bat gutxi gorabehera). Gainera, hauek zein EITBk berak ere ugaritu dute ikus-entzulegoa. Horrek, euskarazko ikus-entzunezkoek badaukatela etorkizuna pentsatzera eramaten gaitu (*Goenkale* bezalako euskarazko programak, kasu, milioi erdi pertsonengana hurbiltzea lortu dutela ez da ahortzi behar).

- Aipatzekoa da ere, *Canal Vasco*, EITBren Satelite bidezko kanalak, Europan zein kontinente amerikarreko herrialde guztietan euskarazko programak ikusteko aukera eskaintzen duela. Euskal kultura eta euskara bi milioi etxeetara ailegatzea lortu du eta horrek etorkizun oparoa duela pentsatzera eramaten du (*Egunkaria*, 2001-2-8). Euskarak ez du inoiz mundura agertzeko horren leiho handirik ukan.
- Euskara globalizazioari aurre egiteko prestaturik dagoenaren beste adibide bat da euskararen sintaxia automatizatzen aurrerapen ugari egin direla. Donostiako Informatika fakultateko Ixa taldeak (*Xuxen* zuzentzaile ortografikoa da taldearen lan ezagunena) itzulpen automatikoaren inguruan aurrerapen asko egin ditu (*Egunkaria*, 2000-7-26). Horrek, euskaratik beste hizkuntza baztuetara itzulpen automatikoak egiteko sistemak sortzea, eta ondorioz, euskarazko produktuen hedakuntza erraztuko ditu.
- *Internet*-i dagokionez, kontuan izan behar da Euskal gaiei buruzko *Internet* atariak ugaritu direla eta Eusko Jaurlaritzak *Internet* euskal etxeetan sartzeko antolatu zuen *Konekta Zaiten* ekimenak mundurako ate ugari zabaltzen dizkiola euskarari, euskarazko web orrialdeak ugaritu daitezkeelako. Ekimenaren lehen bi hilabetetan 10.500 ordenagailutik gora saldu eta konektatu ziren *Internet*-era Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, oro har, etxeen %10 konektatu zirelarik. 2002ko abuztuan planaren lehen aldiaren emaitzak jakitera ematean (2000ko azarotik 2002ko uztaila bitartekoak), etxebizitzaren %30ek du konexioa egina eta planaren barnean 172.732 ordenagailu saldu dira (etxebizitzaren %55ek dituzte ordenagailuak).

- Azkenik, aipatzekoa da euskal kultura eta euskara lehenago ere gaztelania eta frantsesa bezalako hizkuntza handien ondoan bizitzen egon direla, eta beraz, maila txikiagoko globalizazio prozesuei ohiturik daudela. Ildo horretan, globalizazioak ez du euskara eta euskal kultura desagertuko, aitzitik, globalizazioaren eta erregionalizazioaren aurkako defentsa mekanismo gisa herrialde txikien identitate nazional eta lokalak sendotzen doazen neurrian, hauen hizkuntzak eta kulturak ere sendotu egingo dira.

Alde sendoak aurkezten dituen ikuspegi *posibilista* honek nolabaiteko baikortasunera eraman bagaitzake ere, ez du esan nahi euskal kultura eta euskara globalizazioari eta datorkigun iraultza teknologikoari aurre egiteko behar bezala prestatuak daudenik. Izan ere, hala euskarak nola euskal kulturak ahultasun asko dituzte:

- Euskal kulturaren inguruan dauden ikus-entzunezko komunikabide askok baliabide gutxi dituzte euskarari eta euskal kulturari behar bezalako indarra eta maila emateko. Arrazoi askoren artean, euskarazko herri-telebista askok diru arazo larriak eta baliabide gutxi dituztelako.
- Bestalde, kontuan izan behar da herri-irradi eta telebista batzuk erdara hutsez ari direla Euskal Herrian. Aipagarria da Hegoaldeko lau hiriburuetako telebistak (Canal Bizkaia, Telebilbao, Oarso telebista...) erdara hutsez aritzen direla eta, okerragoa dena, ez dutela aurreikusten inolako hizkuntza plangintzarik.
- Euskarazko zineak ere hutsune nabarmenak ditu. Ekoizpenari dagokionez, oso film gutxi egiten dira euskaraz, eta bestalde, euskal zinegileek egiten dituzten filmak (erdaraz, jakina) kanpoko etxeek ekoiztuta daude ia gehienetan (Juanma Bajo Ulloaren *Airbag* edo Alex de la Iglesiaren *Perdita Durango* filmak joera horrek adibide garbiak dira). Gehiago esan daiteke, era honetako produktu

gehienetan ez da euskal sentsibilitaterik edo euskal unibertso kulturalarekiko loturarik ageri, ez gaietan ezta adierazpen moduetan ere.

Filmen bikoizketa aztertzen bada, hutsunea nabarmenagoa dela ikus daiteke. Euskal Telebistaren inguruan hala-holako itzulpen industria sortu bada ere, honek ez du zine areto komertzialetan inolako eraginik izan. Euskal Herriko zantxibait hiriburutan saiakera batzuk egin badira ere, gaur gaurkoz, oso gutxi dira euskarazko pelikulak ematen dituzten zine aretoak. EZA proiektuari (Euskara Zinema Aretoetara) asko ari zaio kostatzen aurrera ateratzea

Euskal Zineari buruzko legedia egon badago ere (zerbait bada), ez du behar bezalako zine industria sortzeko balio izan. Eta hau arazo larria da euskal kulturarentzat zein euskararentzat, aisialdia toki itxietan pasatzeko joerak areagotzen ari diren mundu globalizatu eta gizarte indibidualizatzaile honetan, zineak, eta oro har zinearekin loturiko industriak garrantzi ikaragarria hartzeko bidean baitaude. Euskal kulturaren inguruan zine industria propio bat sortzen ez bada, euskal kulturaren eta euskararen egoera ahula larriagotu egingo da.

- Euskaraz aritzen diren ikus-entzunezkoetara hurbiltzen direnen kopuruak handitu badira ere, kopuru hauek ez dira nahikoak euskal kulturak egoera normalizatua duela esateko. Gehien erakartzen duen euskal komunikabidea ETB1 da, eta hala eta guztiz ere, euskaldungoaren erdira ere ez da ailegaten.
- Bestetik, onartu egin behar da ikus-entzunezko euskal merkatua txikia izateaz gain, behar bezala egituratu gabe dagoela oraindik (Azpillaga 2000). Euskal Herriko ikus-entzunezko komunikabideen arteko harremanak urriak izateaz gain, plan orokorrik gabe ari dira.

- Eusko Jaurlaritzak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan *Internet*-era konektatzeko bultzatu duen *Konekta Zait*ek ekimena guztiz baikorra izanik ere, oraindik ez da mundurako lehia honek euskararentzako eta euskal kulturarentzako izan ditzakeen garrantzi estrategikoari buruzko behar bezalako gogoetarik egin. Ondorioz, atzeraturik dago Euskal Herria gertatzen ari den iraultza teknologikoaren aurrean.

4.3. Euskara bezalako hizkuntza gutxiagotuen etorkizuna ordena linguistiko berrian

Datorren zibilizazio berriaren berezitasun, konplexutasun, aniztasun eta ondorioei buruz pentsatzeko zioak baditugu hizkuntza gutxiagotuetako egoera eta bilakaerarekin ardura agertzen dugun guztiok. Arrazoi anitz dago pentsatzeko globalizazioak sortzen dituen indar eta sinergien itsasoan hizkuntza gutxiagotuek irauteko aukera gutxi dutela; batez ere, teknologia berriek hizkuntza boteretsu eta bakan batzuen (ingelese, errusiera...) gainhartzea ahalbidetuko dutelako.

Edozein kasutan, geure ikuspuntuak jarrera ezkorregietatik aldendu behar duela iruditzen zait. Ikus-entzunezko komunikabideen bitartez hizkuntza arrotzen presentzia ugarituko bada ere, ez dugu pentsatu behar estaturik gabeko herrialde guztiak eta hizkuntza gutxiagotu oro desagertuko direnik, Junyet-ek adierazi bezala.

Arlo batzuetan hiztun gutxiko hizkuntzek homogeneousutasun kulturalari aurre egiteko txikiegiak eta ahulegia diren arren, globalizazioarekin aukera ugari agertzen zaizkie erabaki estrategiko batzuk hartzen badituzte; hots, teknologia berriek eta ikus-entzunezko komunikabideek eskaintzen dituzten aukerak behar bezala erabiltzeko estrategiak martzan

jartzen badituzte. Euskararen kasuan, nahitaezkoak lirateke honako erabaki estrategiko hauek hartzea:

- Euskaraz lan egiten duten ikus-entzunezko komunikabide askoren ahultasuna kontuan hartuz, beharrezkoa da hauek indartzeko estrategia orokorra martxan jartzea. Euskal kulturak teknologien eta ikus-entzunezko komunikabideei buruzko egitasmo edo proiektu orokorra eta propioa behar du. Zinema, telebista eta multimedia guztiak kontuan hartuko dituen interbentzio-plana bultzatu behar da. Plan hori orokorra eta euskal ikuspegia duena izan beharko da, eta ikus-entzunezkoen arloan parte hartzen duten guztiek jarraitu beharreko irizpideak zehaztuko ditu.

Plangintza hau telekomunikazioen esparru propioa eraikitzeko lehen pauso bezala planteatu beharko da; hau da, gaur egun ditugun azpiegitura, indar eta asmo guztiak kontuan hartuz euskaldunontzako komunikazio eremu propioa antolatzeko lehen pauso gisa.

- Beste maila batean, beharrezkoa da euskaraz aritzen diren ikus-entzunezko komunikabideen arteko harremanak sendotzea. *Herri-Telebisten Federazioa* aurrerapauso garrantzitsua bada ere, pauso gehiago eman beharra dago. Beharrezkoa da herri-telebistei laguntzeko estrategiak bideratzea. Eta horrek ETB1 eta herri-telebisten arteko elkarlana bultzatzea eskatzen du.
- Euskal kulturak eta euskarak prestaturik egon behar dute ikus-entzunezko komunikabideen alorrean gertatzen diren aldaketa teknologikoekiko. *Canal Vasco* delakoa ekimen interesgarria bada ere, beste arlo batzuetan oraindik ere atzeraturik eta ahul gaude. Kanal tematikoek (euskaraz ondo ez dakitenentzako kanal espezifikoak, adibidez), *pay per view* eta kable eta lur-azaleko emisio

digitalek euskara bezalako hizkuntza gutxiagotuentzako dituzten abantailen inguruan behar bezalako gogoeta egin beharra dago.

- Herri gisa globalizazioari etekinak ateratzeko *Internet* sarea oso kontuan izango duen hezkuntza bultzatu behar da; ahal den neurrian gizarteko sektore eta klase guztiak inplikatu. Ezin da aiantzi, autore askok salatu duten bezala, *Internet* ekonomikoki egoera onean dagoen jendearen mesederako gertatzen ari dela mundu mailan (munduko biztanleen %97,6ak ez du inoiz *Internet* erabili), eta hori gizarte-desoreken sortzaile gerta daitekeela.

Bestalde, *Internet*-erako edukiak edota orrialdeak ekoiztuko dituzten eta euskaraz aritzeko gaitasuna izango duten enpresen aldeko apustua egin behar da.

Izan ere, ikus-entzunezko produktu propioak ekoizteko ahalmenak ahalbidetuko digu bakarrik norbait izatea globalizatzen ari den mundu honetan.

- Zineari dagokionez, kontuan izan behar da balore, pentsamolde eta ikuspuntu zehatzen (gehienetan amerikarren) igorle hain garrantzitsua den esparru kultural hau kanpoko multinazionalen (Warner, Columbia, 20th Century Fox, Movierecord) eskuetan gelditzeko arrisku handia dagoela, eta ondorioz, beharrezkoa dela zenbait erabaki estrategiko hartzea: euskal zine baten oinarri izango den antzezle eskola gehiago sortu, teknikariak prestatu, pelikulak egiteko estudioak eraiki, eta pelikulen banaketa eta aurkezpena egiteko sare egokia antolatu beharra ikusten da.
- Bikoizketaren ikuspegitik, pelikulak euskaraz eskainiko dituzten zine-gela sarea sortu beharko da gutxienez, eta hasteko, hiriburuetan eta %60tik gora euskaldun dituzten herrietan beharko luke izan. Ez da ahaztu behar, zinemagintzaren inguruko industria sendo batek Euskal Herrian dauden telebisten ekoizpen

propioa zein gaur egun horren ahul dagoen euskarazko publizitatearen bidea erraztu eta bultzatuko lituzkeela.

- Hori guztia euskararen erabilera ziurtatuz egin beharko da. Zentzu horretan, euskarak etorkizuna izango badu esparru kultural gehienetan erdarazko ereduak nagusi izan ordez, euskarazkoen sarbidea ziurtatu beharko da. Lortuz gero, euskal kultura eta euskara inolako arazorik gabe biziko dira mundu globalizatuan.

a) **Ondorioak**

Egoera gutxiagotuan aurkitzen diren hizkuntzen statusa iraultzeko, beraz, zenbait baldintza betetzen dituzten hizkuntzek normalizazio eta berreskurapen linguistikorako aukerak izan ditzaketela pentsa daiteke:

Bat. Hizkuntza gutxiagotuak ikus-entzunezko teknologiekiko zabalik eta prestatuta egon beharko dira, globalizazioarekin datorkigun hizkuntza gatazkei behar bezala aurre egin eta etorkizuna bermatzeko. *Munduko Hizkuntzei Buruzko Txostenean* aditzera ematen den bezala, teknologia berriek, bereziki ikus-entzunezko komunikabideek, garrantzi handia dute hizkuntzen biziraupenean. Zentzu horretan, euren hizkuntzetan komunikabideak dituzten hizkuntza-elkarteak, bereziki telebista dutenak, era honetako komunikabideak ez dituztenak baino gutxiago urritu dira azken urteotan. Era berean, komunikabideetan erabiltzen diren hizkuntzak, erabiltzen ez direnak baino askoz gehiago transmititzen dira.

Kontua baina, hizkuntza guztiek ez dutela komunikabideak sortzeko eta mantentzeko aukerarik da, eta ondorioz, horiengan globalizazioak besteengan baino era ezkorragoan eragingo duela.

Bi. Nolabaiteko babes ofiziala lortzen duten hizkuntzek ere globalizazioari aurre egiteko gaitasun gehiago dute. Arazoak arazo, gogoratu Errusiako Errepublikako hizkuntzen egoera hobeagotu egin dela apur bat 1990. urtean Sobiet Gorenak *SESBeko Hizkuntzen Legea* onartu eta errusieraren alboan beste hizkuntza batzuen ofizialtasuna onartu zuenetik. Gorbachev-ek hasi zuen Perestroikaren ondorioz identitate nazionalaren garapena erraztu eta asimilazio prozesua pixka bat gelditzea lortu da Ipar Kaukasoan eta, oro har, Errusiar Federazioko herri askotan. Lege berriak hezkuntzan erabili behar ziren hizkuntzei eta, orokorrean, hizkuntzen babeserako zenbait ekimen eta lan (hiztegiak, hizkuntza ezberdinetan idatzitako liburuak, komunikabideak...) bultzatu dituen heinean, gauzak apur bat aldatzen hasi dira.

Gogoan hartzekoa da ere Norvegiako laponiarren hizkuntza Suedia, Finlandia eta errusiarrena baino egoera hobeagoan dagoela. Izan ere, Norvegiako gobernuak gutxiengo etniko bezala onartu zituen bere menpeko ziren samiak, eta herri indigenen eskubideak babesten dituen ILOren 169. konbentzioa onartu zuen. Samien alde hartutako erabakien artean aipatzekoak dira Norvegiako Samien Legebiltzar eta eskubideak zehazten dituen 56. akta (1987) eta 1988ko urtean Norvegiako Konstituzioan sartu zen 110. artikulua. Artikulu honen arabera: *Estatuko agintarien erantzunkizuna da sami herriari euren hizkuntza, kultura eta bizitzeko era mantendu eta garatzea ahalbideratuko dioten baldintzak sortzea.*

Hiru. Euren hizkuntza eta kultura babestearen aldeko kontzientzia lortzen duten hizkuntza-elkarteek ere mundu globalizatuan bizitzeko aukera gehiago izango dute. Zentzu horretan, gizarte teorilari batzuen ustez, gauzak asko ari dira aldatzen munduan barrena. Munduko kultura eta herri asko pizten edo kontzientzia hartzen ari dira euren nortasuna gorde eta etorkizunean ere mantentzeko. Gero eta gehiago dira globalizazioaren eta dena

berdindu nahi duen ekonomia neoliberalaren aurkako erreakzio gisa, euren kultura eta hizkuntzekiko atxikimendua erakusten duten talde etnolinguistikoak.

Samiak, esaterako, aspaldi hasi ziren euren hizkuntza eta kultura babesten. Hain zuzen ere, 50eko hamarkadatik aurrera herri nortasuna piztu eta herrialde ezberdinetako samien arteko elkar-lana indartzen hasi zen. Honek guztiak, 70eko hamarkadan bigarren erditik aurrera eskumen maila handiagoak lortzea eta euren egoera hobeagotzea ekarri du.

Arazoak ugari izanda ere, maia kulturaren nolabaiteko berpiztea gertatzen ari dela esan genezake. Mendeetako zapalkuntza, identitate kulturalaren ukazioa, eta, oro har, genozidioa ezagutu badituzte ere, bizirik jarraitzeko gero eta gogo biziagoak erakusten dituzte. Areago, euren herri nortasuna sendotzen ari denaren adierazle baikor ugari agertzen dira han eta hemen:

Alde batetik, eta gertatutakoak gertatuta ere, asko dira oraindik ere Mexiko eta Guatemalan, baita Belizen ere, euren burua maiatzat agertu eta maia hizkuntzetan hitz egiten dutenak. Zenbait iturrien arabera, 3.500.000 (Ethnologue 1992) eta beste batzuen arabera 2.000.000 hiztun dituzte gaur egun maia hizkuntzek. Gainera, gauzak gaizki egonda ere, gero eta kontzientzia handiagoa hartzen ari dira euren kultura eta hizkuntza gordetzearen garrantziaz, eta ondorioz, kultura suspertzearen alde gero eta eskakizun eta ekintza gehiago egiten dituzte. Aipatzekoa da, adibidez, Mexikoko *Azteka 13* telebista katean maia hizkuntza erakusten den telebista saioa lortu dutela, eta zenbait irrati-katek ere hizkuntza honetan diharduela. Beste herrialde batzuk lortu dutenarekin (Euskal Herria, kasu) alderatuz oso gutxi dela iruditzen bazaigu ere, herri hauen historian aurrerapauso garrantzitsuak dira.

Bestalde, gogoratzekoa da 1994an Nazio Askapenerako Armada Zapatistak (EZLN) Chiapas estatuko hainbat hiri eta herri hartu zituela armaz, lurraren erreforma, indiarren

kultura eta eskubideen errespetua eta iruzurrik gabeko hauteskundeak eskatzeko. Chiapasen gertatzen ari denak, maien eta oro har amerindiarren egoeraren kontzientzia hartu eta presioa egiteko balio izan du, pentsa daitekeelarik Mexikoko maien egoera hobetzeko balioko duela.

Lau. Botere politikoa eskuratzen duten hizkuntza komunitateek etorkizunean ere bizitzeko aukera gehiago izango dutela pentsa daiteke. Aipatu samiak botere politikoa eskuratzen joan diren heinean, euren hizkuntza eta kulturaren egoera ere apur bat hobeagotzea lortu dute. 70eko hamarkadaz geroztik sortu diren legebiltzar samiak (Suedia-1993, Finlandia-1976 eta Norvegia-1989) eragin baikorra izan dute samien hizkuntza eta kulturarengan. Eskozian ere gauza bera ikusten dugu 1998an legebiltzar autonomoa sortu zenetik.

Honelako legebiltzarrek, gainera, administrazio autonomikorik ez duten beste herrialde batzuetan ere eragiten ari dira, eta pentsatu behar da XXI. mendean era honetako botere autonomoak ugaritu egingo direla. Egiaz, teknologia berriek euren arteko harremanak hobeagotu edota informazioa elkartrukatzeko balioko die, eta, ondorioz, era honetako erakundeen arteko loturak erraztu eta ugaritu egingo dira. Bada, gaur egun dauden estatuengan zein nazioarteko erakundeengan (EB edo NBE, adibidez) eragiteko gaitasun handiagoa izango dute. Areago, zenbaiten arabera, globalizazioak muga administratiboen apurketa eta gaurko estatu-nazioen ahultzea ekarriko du, eta, horrekin batera, baita egitura politiko hurbilagoen indartzea ere (Habermas 1989, Keating 1996, Zabalo 2000). Errusiako samiak (2.000 inguru), adibidez, legebiltzar autonomo bat eskatzen dabilta Finlandia, Suedia eta Norvegiako samiak era horretako erakundeak dituztela ikusita. Legebiltzar propioa ez duten sami bakarrak izanik, beste herrialde nordikoetan dauden bezalako

erakunde bat aldarrikatzen dabilta, ohituraz erabili dituzten eskumenak berreskuratu eta beraien herrien egoera politikoa hobeagotzeko.

Horregatik guztiagatik, globalizazioarekin hizkuntza ahul askoren heriotza gertatuko bada ere, egoera hobeagotzeko aukerak ere agertzen zaizkie baldintza batzuk betetzen dituzten hizkuntzei, hots, nolabaiteko babes ofiziala, botere politikoa, herri kontzientzia eta ikus-entzunezko komunikabideen kontrola lortzeko gaitasuna dutenei.

V. GLOSARIOA

Alde bakarreko elebitasuna: Bi komunitate unitate administratibo berean bizi direlarik (Estatua), komunitate horietako bateko hiztuna denean bi hizkuntzen jabe eta beste komunitatekoa, berriz, ez.

Dialektoa: Hizkuntza baten baitako aldaera linguistiko oro da dialektoa. Dialektoek izaera geografiko, sozial edo historikoa izan dezakete.

Eleaniztasuna: Eremu administratibo edo geografiko berean bi hizkuntza edo gehiago elkarren ondoan daudenean. Hizkuntza bat baino gehiago ezagutzen dituen hiztuna, berriz, eleaniztuna da.

Elebakartasuna: Eleaniztasunaren aurkako egoera, hizkuntza bakarra dago indarrean.

Elebiduntasuna: Hizkuntza bat baino gehiago ezagutzen dituen hiztuna da. Eztabaida iturri gertatzen da gaitasuna aitortzeko behar den jakite maila.

Elebitasun egonkorra: Bi hizkuntza edo hizkuntza bereko bi aldaera komunitate berean banaketa funtzional zehatza gordeaz bizi direnean.

Elebitasun soziala: Elebitasuna komunitate mailakoa denean, ez gizabanakoen mailakoa.

Alde bakarreko elebitasuna dagoenean elebitasun hori soziala da.

Elebitasuna: Bi hizkuntzen erabilera ezaugarritzat duen egoera pertsonala.

Endolinguismoa: Etxeko hizkuntzan mintzo diren bi hiztunen arteko komunikazioa

Erlatibitatea: Hizkuntza erlatibitatearen teoriaren arabera kultura bakoitzak errealitatea interpretatzeko era berezia du. Errealitateari buruzko ikuspegi eta formalizazio oro, beraz, erlatiboa da.

Exolinguismoa: Bi hiztunen arteko komunikazioan hiztun batek edo biek etxeko hizkuntza ez duten beste batean mintzatzean sortzen den egoera.

Historia soziala: Hizkuntza komunitateak bere hizkuntzarekiko harremanean bizi izandakoaren memoria.

Hizkuntza ordezkapena: Komunitate baten baitan hizkuntza bat mintzatzeari utzi eta honen ordezkari beste bat nagusitzen denean.

Hizkuntza gatazka: Hizkuntzen arteko harremana azaltzen duen hipotesia. Hipotesi honen arabera hizkuntzaren baitan sortzen diren desorekek (bere baitan eraginak edo kanpotik eragindakoak) gatazka sortzen dute.

Hizkuntza gutxiagotua: Kolektibitatean nagusitzen den talde maioritarioa ez bestelako etnia batekoa den gutxiengoa.

Hizkuntza heriotza: Hizkuntza bat hiltzera daraman prozesu linguistikoa.

Hizkuntza murriztea: Hizkuntza heriotza prozesuetan atzeraka doan hizkuntzaren hiztunak gaitasunak galtzen joatea eta hizkuntza horren egitura morfosintaktikoa, lexikoa nahiz fonetikoan aldaketa murriztaileak gertatzea.

Identitatea (etnikoa): Hizkuntza baten hiztunek beren hizkuntza komunitateaz duten hautematea: Identitate hori indartsua nahiz ahula izan daiteke, eta horrek hizkuntzari eustea edo galbidean jartzea eragin dezake.

Interakzioa (elkarreragina): Bi edo solaskide gehiagoren arteko komunikazio egoera.

Interferentziak: Bi hizkuntzen arteko ukipenaren ondorioz elkarrengandik jasotzen duten eragina.

Komunikazio gaitasuna Hizkuntza gaitasuna eta gaitasun pragmatikoaren batura da. Hiztunak esandakoa ulertzeko hizkuntzazko osagaiak ulertzeaz gain, non, noiz, nork...esan dituen ulertzeko gauza izan behar du. Beraz, adierazi nahi duguna behar bezala ulertarazteko edo ulertzeko dugun gaitasuna da.

Komunitatea: Elkarrekin ibilbide historiko bat egina izan eta bere baitan komunikazio dentsitate handia duen hiztun multzoa.

Kreolera: Komunikazio hizkuntza bihurtutako *pidgina*. Bilakaera hori belaunaldi bat hizkuntza horretan sortu eta hezitzean gertatzen da.

Pidgina: Harreman komertzialak bideratzeko gorpuztutako esamolde multzoa.

Soziolektoa: Izaera soziala duen dialektoa

Transferentzia: Ukipenaren eraginez beste hizkuntza batetik etorritako hizkuntza marka edo ezaugarria.

VI. AIPATU EGILE ETA LAN BATZUK

ABU-LUGHOLD, L. (1991): "Writing against culture", in R.G. Fox (comp.), *Recapturing Anthropology*, Santa Fe, Nuevo Mexico: School of America Research Press.

AMEZAGA, J. (1999-5-23): "EITB nazio eraikuntzan", in *Egunkaria*

- (2001-3-31): "Arabierazko telebistak Bilbon", in *Egunkaria*

ANDERSON, Benedict (1993): *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*, Mexiko: Fondo de Cultura Económica (1. arg. ingelesez 1983an; itzulpena 2. argitarapena da, 1991koa).

- (1998): "Éxodo", *Inguruak* 21, 7-23. orr. (1. arg. ingelesez, 1994an)

ANDERSON, Perry (2000): *Los orígenes de la posmodernidad*. Bartzelona: Anagrama. (1. arg. ingelesez, 1998an).

ARANA, Edorta (1999-6-1): "Haritik tiraka", in *Egunkaria*

ARNASON, Johann P. (1990): "Nationalism, Globalization and Modernity", 207-234 orr. in
FEATHERSTONE, Mike -zuz.-: *Global culture. Nationalism, globalization and modernity*, Londres:
Sage Publications (1995eko berrargitarapena erabili dut)

ATXABAL, Juana (1992): *Narziso berriaz gogoetak*, Bilbo: UEU

AZPILLAGA, P. (2000-5-6): "Euskal industria kulturalak eta globalizazioa", in *Egunkaria*

BARBER, B.R. (1992): "Jihad vs. McWorld", in *Atlantic Monthly* 269 zbk

BASTARDAS, Albert (2002): *Política lingüística mundial a l'era de la globalització: diversitat i intercomunicació des de la perspectiva de la 'complexitat'* komunikazioa, Bartzelona: Linguapax kongresua

BECK, Ulrich (1998a): *La sociedad del riesgo. Hacia una nueva modernidad*, Bartzelona: Paidós

- (1998b): *¿Qué es la globalización? Falacias del globalismo, respuestas a la globalización*, Bartzelona: Ed: Paidós Ibérica (1. arg. alemanez, 1997an).

- (2000): *La democracia y sus enemigos*. Bartzelona: Paidós

BERGER P. eta LUCKMANN T. (1997): *Modernismo, pluralismo y crisis de sentido. La orientación del hombre moderno*, Barcelona: Paidós Estudio

BRUNSVICK, Y eta DANZIN, A. (1999): *Nacimiento de una civilización*, Paris: Ed. Unesco

CASTELLS, Miguel (1998): *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. El poder de la identidad*, Vol II, Madrid: Alianza.

CRYSTAL, D. (2000): *Language Death*, United Kingdom: Cambridge University Press

DOUGLASS, William A. (1998): "Críticas de las últimas tendencias en el análisis del nacionalismo", in *Migración, etnicidad y etnonacionalismo*, EHU/UPV. 77-96 orr.

EGIA, Gotzon (2002): *Las ventajas de ser pequeño: notas sobre la presencia de la lengua vasca en Internet* komunikazioa, Barcelona: Linguapax kongresua

EMENANJO, E. (2002): *Language policies and cultural identities* komunikazioa, Barcelona: Linguapax kongresua

FEATHERSTONE, Mike (1990): *Global Culture. Nationalism, globalization and modernity*, Londres: Sage Publications (1995eko berrargitarapena erabili dut).

FRIEDMAN, Jonathan (1990): "Being in the World: Globalization and Localization", 311-328 orr., in FEATHERSTONE, Mike -zuz.-: *Global culture. Nationalism, globalization and modernity*, Londres: Sage Publications (1995eko berrargitarapena erabili dut)

- (1994): *Cultural Identity and Global Process*, Londres: Sage Publications (1995eko berrargitarapena erabili dut).

GUIBERNAU, Montserrat (1996): *Los nacionalismos*. Bartzelona: Ariel

GIDDENS, A. (1993): *Consecuencias de la modernidad*, Madril: Alianza

- (2001): *Un mundo desbocado. Los efectos de la globalización en nuestras vidas*. Madril: Taurus

HALE, K. (1992): "Endangered Languages" in *Language* 68-1 zbk, 1-48 orr.

HANNERZ, U. (1992): *Cultural Complexity*, New York: Columbia University Press

JAMESON, Fredric (1991): *El posmodernismo o la lógica cultural del capitalismo avanzado*, Bartzelona: Ed Paidós (1. arg. ingelesez, 1984an.).

JUARISTI, Patxi (2001): *Euskal Herria globalizazioaren aurrean*, Bilbo: Euskaltzaindia, BBK

JACOBSON, D. (1996): *Rights Across Borders*, Baltimore: Johns Hopkins University Press

JUNYET, C. (1993): *Las Lenguas del Mundo. Una introducción*, Bartzelona: Octaedro

- (1999): *La Diversidad Lingüística. Didáctica y recorrido de las lenguas del mundo*, Bartzelona: Octaedro

KRAUS, M. (1992): "The World's Languages in Crisis" in *Language* 68-1 zbk, 4-10 orr

MAFFESOLI, M. (1990): *El tiempo de las tribus*, Bartzelona: Icaria

MAY, S. (2001): *Language and Minority Rights. Ethnicity, Nationalism and the Politics of Language*, Harlow: Pearson Education Limited

MENDIZABAL, Antxon (1999): *La globalización. Perspectivas desde Euskal Herria*, Lizarra: Hiru

McLUHAN, M. (1990): *La Aldea Global: transformaciones en la vida y los medios de comunicación mundiales en el siglo XXI*, Bartzelona: Sedisa

McNEILL, W.H. (1986): *Polyethnicity and National Unity in World History*, Toronto, Toronto University Press.

MELUCCI, Alberto (1998): "Raíces para hoy y para mañana: los movimientos etnonacionalistas...", *Inguruak* 21 37-43 orr.

- (2000): "¿Qué clase de globalización?" , in *Inguruak* 26, Martxoa, 41-49 orr.

- (2001): *Vivencia y convivencia. Teoría social para una era de la información*, (Jesús Casquette ed.), Madril: Trotta.

NEGROPONTE, N. (2000): *El Mundo Digital. Un futuro que ya ha llegado*, Bartzelona: Ed. B

ORTEGA, Andrés (2000): *Horizontes cercanos. Guía para un mundo en cambio*. Madril: Taurus

PEREZ, Carlota (2000): "Nuevo contexto para el desarrollo sustentable" in http://veillon.forest.ula.ve/thomas/vision/nuevo_contexto.html, Venezuela

ROBERTSON, Roland (1990): "Mapping the Global Condition: Globalization as the Central Concept", 15-30 orr., in FEATHERSTONE, Mike -zuz.-: *Global culture. Nationalism, globalization and modernity*, Londres: Sage Publication (1995eko berrargitarapena erabili dut).

- (1992): *Globalization. Social Theory and Global Culture*, Londres: Sage Publications (1996ko berrargitarapena erabili dut).

- (1994): "Globalization or glocalization?", *The Journal of International Communication* 1:1, 33-52 orr.

- (?): *Identidad nacional y globalización: falacias contemporáneas*, in. <http://132.248.82.108/rms/rms198/robert2.html>

RUBERT de VENTÓS, Xavier (1999): *De la identidad a la independencia. La nueva transición*, Bartzelona: Anagrama

SMITH, Anthony D. (1990): "Towards a Global Culture?", 171-191 orr., in FEATHERSTONE, Mike -zuz.-: *Global culture. Nationalism, globalization and modernity*, Londres: Sage Publication (1995eko berrargitarapena erabili dut)

- (1997): "¿Resurgimiento del nacionalismo? Mito y memoria en la renovación de las naciones", *Inguruak* 19, Abendua, 37-70 orr. (lehenengoz ingelesez argitaratua, 1996an).

- (2000): *Nacionalismo y Modernidad*. Madril: Istmo ed.

TOFFLER, A. (1999): *La Tercera Ola*, Bartzelona: Ed. Orbis (3. argitarapena)

YOUNG, Linda (2002): " Globalisation, Culture and Museums" in *Icom News*, 1.zbk.

VERDU, V (1996): *El Planeta Americano*, Bartzelona: Anagrama

VIRILIO, P. (1997): *El ciber mundo, politica de lo peor*, Madril: Ed. Cátedra

WALLERSTEIN, Inmanuel. (1996): "World System versus world-systems. A critique", 292-296 orr., in FRANK / GILLS -zuz-: *The world system. Five hundred years of five thousand?*, Londres: Routledge.

ZABALETA, I. (1999-7-20): "Telebista eta euskara, estrategia berriak", in *Egunkaria*

ZABALO, Julen (2000): *Abertzaleak eta ezkertiarak*, Donostia: Elkarlanean